

Pertur kasuari buruzko txostena: gaiaren egungo egoera

EHU Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedra



Giza Eskubideen eta
Botere Publikoen Katedra
Cátedra de Derechos
Humanos y Poderes Públicos



2017ko maiatzaren 17a

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren
enkarguz egina

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Giza Eskubide, Bizikidetzeta
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación

***Pertur* kasuari buruzko txostena: gaiaren egungo egoera**

EHU Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedra



Giza Eskubideen eta
Botere Publikoen Katedra
Cátedra de Derechos
Humanos y Poderes Públicos

2017ko maiatzaren 17a

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren
enkarguz egina

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Giza Eskubide, Bizikidetzeta
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación

Aurkibidea

Sarrera	5
I. <i>Pertur</i> kasuaren historia	7
1. Sarrera	8
2. Eduardo Moreno Bergaretxe <i>Pertur</i>	8
3. <i>Perturren</i> desagertzea	9
4. Desagertzea baino lehen	9
4.1. Familiaren etxebizitzaren aurkako atentatua	9
4.2. <i>Perturren</i> aurkako mehatxuak	9
4.3. Marta Bergaretxe Ituarteren atxiloketa	10
4.4. Marta Bergaretxe desagertutako bi polizia espainiarrekin trukatzeko ekimena	10
4.5. La Voz de España egunkariak ETAko militanteen aurkako ofentsiba bat iragarri	12
4.6. José Amedoren liburuan bahitutako polizia-inspektoreei buruz egiten den aipamena	12
4.7. Indarkeria politikoa 1975. eta 1976. urteetan	12
4.8. ETApm-ren egoera 1976an	13
5. Desagertzearen ondoren	14
5.1. Donibane Lohizuneko eta Donostiako polizia-etxeetan aurkeztutako salaketak.	14
5.2. Erreibindikazioak	16
5.3. Trukeari buruzko zurrumurrua	17
5.4. ETApm-ren baitan egindako ikerketak	17
5.5. ETApm-ren VII. Biltzarra. 1976ko abuztua-iraila	17
5.6. Frantziako diligentziak	18
5.7. 1978: Familiak “Bereziei” buruz dauzkan susmoak	20

5.8. ETA m-k familiari emandako erantzuna _____	21
5.9. Biriatuko hilerrian. 1997ko iraila _____	21
5.10. José Antonio Sáenz de Santa Mariak “gerra zikina”ri buruz esandakoak 1998an _____	21
5.11. 30. urteurrena (2006) _____	22
5.12. Italiako sumarioa: ETAREN aurka Frantziako hegoaldean _____	22
5.13. Auzitegi Nazionaleko kereila _____	22
5.14. F. Andreu epailearen instrukzioa _____	25
5.15. Ángel Ugarte eta Emilio Rodríguez Román zitatzeko berraztertze errekurtsua. 2010eko urria _____	26
5.16. Autoa _____	27
5.17. Ondorio gisa _____	27

II. <i>Pertur</i> kasua: Prozedura irekitzeko eta zigorra ezartzeko aukerei buruzko arazoak nazioarteko estandarren eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren ikuspuntutik _____	29
1. Sarrera _____	30
2. Espainiako Auzitegi Gorenaren irizpidea _____	30
2.1. Zigor arloko prozedura eta egiaren bilaketa _____	30
2.2. Legezketasun-printzipioa _____	31
2.3. Sintesia _____	33
3. Nazioarteko ikuspegia _____	34
3.1. Delitu iraunkorrak eta haien preskripzioa _____	34
3.2. Amnistia Legea aplikatzekoa den ala ez _____	36
4. Egungo egoera prozesala eta etorkizunerako perspektibak _____	37
III. Sintesi bat: amaierako gomendioak _____	39
Bibliografia eta bestelako iturriak _____	41

Sarrera

Txosten hau Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eskatu zion 2016ko irailean UPV/EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedrari. Urte bereko ekainean, bi erakunde horiek lankidetzaz hitzarmen bat sinatua zuten Katedra sortu, garatu eta sostengatzeko, eta hitzarmen horretan jardueren programa bat zehaztu zen, zeinean jaso baitzen ikerketa-ildo bat egotea Euskadin motibazio politikoko testuinguruan gertatutako giza eskubideen urraketako kasu enblematikoei buruz.

Txostenak oinarritzko hiru atal dauzka: egitateen deskribapena; haien azterketa juridikoa eta amaierako hainbat gomendio. Txostenarekin asmoa ez da izan ikerketa bat egitea egitateak behin betiko argitzeko —horretarako ez eskumenik, ez ahalmenik ez du Katedrak—, baina bai bilketa ahal den fidagarriena egitea gaiaren egoerari buruz, sekula argitu ez den egiletzari buruzko bi hipotesien arabera (ETA versus Estatuaren aparatuetan). Lehenengo atalean zehar zabaltzen doan bilketa horretan datu ukaezinak ez ezik, funtsean bigarren mailako iturrien bidez (hemerroteka, liburuak...) eta eskura dagoen material judizialaren bidez argitzen joan diren erreferentziak ere jaso dira.

Bigarren atalean, “prozedura irekitzeko eta zigorra ezartzeko aukerei buruzko gaiak” deitu direnak aztertzen dira, bai barneko ikuspegitik, bai nazioarteko ikuspegitik ere. Azterlana, azterketaren sakontasunari dagokionez, hura egiteko izan dugun denbora-tarteari egokitzen zaio. Lanaren profila gehiago da konklusio bat ateratzeko eta asertiboa espekulatiboa baino, zeren eta gehiago bilatzen baitu txostena eskatu duen erakundeari, geroko erabakiei begira, abiapuntu fidagarri bat ematea, sortzen diren galderei buruzko eztabaida zientifiko eta jurisprudenzia-eztabaida irristakorretan —amnistia eta indarrezko desagertze kasu hauen preskripzioa, esate baterako— sakontzea baino. Nolanahi ere, ezinbestekoa zen gaiaren egoerari eta etorkizunerako perspektibei buruzko argitze bat, kasu hau gaur egungoa dela aintzat hartuta: Eduardo Moreno Bergaretxek —*Pertur* ezizenaz ezagunak— desagertuta jarraitzen du. Eta desagertuta jarraitzen duenez, horrek berekin dakarren zuzengabekeriak egunetik egunera gaurkotzen jarraitzen duenez eta sufrimendua ren sorrera gelditu ez denez, lanaren amaiera sintesi erako hainbat gomendioarekin egiteko premia zegoen.

Txostena, nagusiki, Bertha Gaztelumendik egin du, bera arduratu baita, funtsean, egitateen atalaz; Enara Garrok, berriz, arreta handiagoa eskaini dio azterketa juridikoari. Jon-M. Landa txostenaren zuzendaritzaz eta koordinazioaz arduratu da.

Ez genuke sarrera hau amaitu nahi eskerrik beroenak eman gabe Martin Auzmendi abokatuari, material judizial ugaria Katedraren esku uzteagatik, helarazi dizkigun jarraibide eta informazioengatik eta, batez ere, proiektu honekiko izan duen jarrera hurbilagatik. Haren ekarpenak zinez erraztu digu lana.

I *Pertur* kasuaren historia

1. Sarrera

Eduardo Moreno Bergaretxe bahitu zutenetik eta desagertu zenetik 40 urte iragan ondoren, egitate horri buruzko ia daturik ez dago, eta are gutxiago erantzunik. Ezer ere ez dakigu 1976ko uztailaren 23ko eguerdi hartan gertatutakoaz, Apalak eta Pakitok Pertur Donibane Lohizunetik Behobiara (Hendaia) autoz eraman eta mugatik hurbil utzi zutenetik. Lehenengo susmoak Espainiako talde parapolizialei buruzkoak izan ziren, zeren eta ordurako hainbat atentatu eginak baitzituzten ETako errefuxiatuen aurka Ipar Euskal Herrian. Gainera, Pertur desagertu eta egun gutxiren buruan “Alianza Apostólica Anticomunista de España” eta “Batallón Vasco Español” taldeek bahiketa erreibindikatu zuten, eta arestian aipatutako ideia indartu zuen horrek.

Hala eta guztiz ere, urte eta erdi igarota, ETApM-ko komando berezietako burukideen (Eugenio Etxebeste, Miguel Ángel Apalategi eta Francisco Mujika Garmendia ziren liderrak) eta Perturren artean zegoen lehia ezagututa eta jakinda Apala eta Pakito izan zirela Pertur bizirik ikusi zuten azkenak, Perturren familiak haiek seinalatu zituen susmagarri gisa.

Egun, Martin Auzmendik, Perturren militantziako kide, abokatu eta familiaren lagun denak *“haren bahiketa eta desagertzea argitzeko”* eskatzen jarraitzen du¹. Auzmendik salatzen du *“ETA erakundeak eta haren inguruneak urte hauetan guztietan gertatutakoa argitzeko izan duen interes eza eta Espainiako agintari polizialek urte hauetan guztietan zehar ezer ere ikertu ez izana”*², Fernando Andreu epaileak egindako diligenzietan agerian geratu zen moduan.

Auzitegi Nazionaleko magistratuak lau urtez ikertu zituen bi hipotesi horiek, “Bereziak” egile gisa seinalatzen zituena eta Espainiako zerbitzu polizial eta parapolizialak edo neofaxista italiarrak arduraduntzat jotzen zituena. Auzmendik dio sinetsita dagoela *“batzuek badakitela zer gertatu zen, baina isilik daude. Itxura guztien arabera, bere konfiantzako pertsonaren baten parte-hartzearekin, Pertur amarruzko hitzordu baten biktima izan zen; bahitzea eta desagerraraztea prestatua zutenengana eramatea zen hitzordu horren xedea”*³.

Eduardo Moreno Bergaretxeren desagertzearen 40. urteurrenean, 2016ko uztailaren 17an, Diario Vasco egunkarian argitaratutako gutun batean, haren guraso eta anai-arrebek azaldu zuten denbora honetan guztian denetatik bizi izan dutela, *“hasiera bateko nahasmena, zalantza, amorrua, bertsio desberdinak, pista faltsuak, manipulazioa, omenaldiak eta huts egindako ikerketak; eta urrats bakoitzean itxaropen-izpi bat izan dutela eta gero berriz ere etsipena”*.

Gutun berean samingarritzat jotzen dute gaur egun oraindik ere *“zer gertatu zen ez jakitea”*, eta honako hau aipatzen dute: *“ezer ere ez daukagu, mina eta pena izugarri bat baino ez”*. Gutunaren amaieran dei bat egiten diote *“egiazki zerbait badakiten pertsonen kontzientziari. Esan diezagutela zer gertatu zen eta, batez ere, non dagoen, azkenean kapitulu hau behin betiko itxi ahal dezagun”*⁴.

2. Eduardo Moreno Bergaretxe Pertur

Donostian jaio zen 1950eko urriaren 13an. 1972an Frantziara erbesteratu zen, Bilbon poliziengandik ihes egin ondoren. Donibane Lohizunen bizi zen, errefuxiatu politiko gisa.

ETApM-ko buruetako bat izan zen, eta bulego politikoaren arduraduna, *Erreka* esaten zioten Javier Garaialderekin batera. Pertur desagertu aurreko hilabeteetan, Perturrek eta Errekak “Otsagabia” ponentzia idatzi zuten, zeinean Franco hil ondoren zabaltzen zen garai politiko berrian, bide politiko bat irekitzearen alde egiten baitzuten, borroka

1 AIZPEOLEA, L.R. “¿Qué fue de Pertur?” *EL PAÍS*. 2016ko uztailaren 23a.

2 AUZMENDI, M. “Pertur: ostirala, 2016.eko uztailak 22ostirala, 2016.eko uztailak 2240 años desaparecido” *ELDIARIO.ES*, 2016ko uztailaren 22a. 2016ko urriaren 19a.

3 AIZPEOLEA, L.R. “¿Qué fue de Pertur?” *EL PAÍS*. 2016ko uztailaren 23a.

4 EFE. “Perturren familiak “zerbait badakitenei” eskatzen die “non dagoen” esan diezaietela”. 2016ko uztailaren 17a.

armatua atzealdean utziko zuena. Proposamen hori ETApm-ren VII. Biltzar Nagusian onartu zen, 1977ko abuztu-irailetan, Pertur desagertu ondoren. Erabaki hori da gero EIA (Euskal Iraultzarako Alderdia) alderdi politikoaren sorrera ekarriko zuena. Eduardo Moreno Bergaretxe 1976ko uztailaren 23tik, ostirala, dago desagertuta.

3. Perturren desagertzea

Jarraian, Perturri buruz ezagutzen diren azken datuak emango ditugu, hura desagertu aurrekoak, Moreno Bergaretxeren gurasoek 2008ko maiatzean aurkeztutako kereilan jasota dauden moduan.

“Eduardo Moreno Bergaretxek 1976ko uztailaren 22tik 23rako gaua Donibane Lohizunen bizitoki zeukan apartamentuan eman zuen.

Uztailaren 23an goizeko 9:00etan irten zen bere apartamentutik hitzordu batera joateko. Hitzordu hori egun batzuk lehenagotik jarria zuen Hendaiako Mugalde liburu-dendaren bitartez. Hitzordua 10:00etarako jarrita zegoen, Donibane Lohizuneko Consolation kafetegian, ustez “orain dela hilabete ezagutu zenuen eta berriz ere zu ikusi nahi zaituen pertsona batekin” biltzeko. Kafe horretan lanean ari ziren pertsonen lekukotasunaren arabera, uztailaren 23ko goizean Eduardo ez zen establezimendu horretara iritsi, zergatik ez zen iritsi inork ez dakiela.

Donibane Lohizunen bertan, 09:40ak aldera, Eduardo Miguel Ángel Apalategi Aierberekin, Apala, eta Francisco Mujika Garmendiarekin, Pakito, eginga zuen topo. Horiek Hendaiara bizi ziren, eta autoa bazeukaten. Haiak adierazitakoaren arabera, Eduardo Moreno Bergaretxek galdetu zien Hendaiara joateko asmorik ba al zuten, eta hala bazen, Behobiaraino eramango ote zuten. Betiere haiak esandakoaren arabera, baiezko erantzuna jasota, autoan sartu zen Miguel Ángel Apalategi Aierberekin eta Francisco Mujika Garmendiarekin. Hori guztia hirurak ezagutzen zituzten bi lagunek ikusi omen zuten; horietako bat, Eleuterio Jauregi Beloki, Trotsky, izan zen. Horrela, esandakoaren arabera, Apalak eta Pakitok Behobian utzi zuten Pertur, Irungo mugatik hurbil zegoen bidegurutze batean, eguerdiko 11:30ean gutxi gorabehera”⁵.

4. Desagertu aurretik

Eduardo Moreno Bergaretxe desagertu baino zenbait hilabete lehenago, kasuaren ikerketarako garrantzitsuak diren zenbait gertakari izan ziren. Aipatuko ditugun egitateak ez dira isolatuak, lotura bat baitute elkarren artean, eta lotura baitute, halaber, Perturren familiarekin eta gertukoekin.

4.1. Familiaren etxebizitzaren aurkako atentatua

Lehenbizi, gogorazi behar dugu, Irunen, Moreno Bergaretxeren familiaren etxebizitzaren aurka Batallón Vasco Españoleko kideek 1975eko azaroaren 20an egindako atentatua⁶.

4.2. Perturren aurkako mehatxuak

1976ko martxoaren 25ean, Eduardo Moreno Bergaretxek salaketa bat aurkeztu zuen Donibane Lohizuneko polizia-etxean, “Union Patriótica Nacional” Espainiako eskuin-muturreko taldeak sinatutako gutuna jasoa baitzuen. Hartan, egileek Perturren gurasoen kontra jotzeko mehatxua egiten zuten, ETApm-k 1976ko martxoaren 18an bahitutako Ángel Berazadi industrialia berehala askatzen ez bazuten.

⁵ Auzitegi Nazionalen maiatzaren 13an aurkeztutako kereila.

⁶ RUIZ DE AZUA, V “Un «ultra arrepentido» denuncia actuaciones de miembros del Batallón Vasco Español en Euskadi”. *EL PAÍS*. 1981eko irailaren 3a.

Gertakari hori aipatu egiten da Frantziako Polizia Judizialak Eduardo Moreno Bergaretxeren desagertzeari buruz egindako txostenean. Agiri berean aipatzen da Moreno Bergaretxeren izena “*bahiketa horren ikertzai-le nagusi gisa*” aipatu zela⁷.

4.3. Marta Bergaretxe Ituarteren atxiloketa

Pertur desagertu baino lau hilabete lehenago, 1976ko martxoaren amaieran, Eduardo Moreno Bergaretxeren ama Irungo mugatik hurbil atxiki zuten, semea ikustera zihoanean. Marta Bergaretxe Irungo poliziako buru López Maturanaren etxebizitza partikularra eraman zuten, eta han hiru egunez egon zen atxilotuta⁸.

Atxiloketa hain bitxi horretarako azalpen bakarra urte asko iragan ondoren lortu zen, Andreu epaileak Moreno Bergaretxeren desagertzeari buruz irekitako diligenzietan zehar (2008-2012).

Eduardo López de Maturana García Irungo komisarioburua eta Mugarako delegatua zen, eta Andreu epailearen aurrean eman zuen lekukotasunaren arabera “*Segurtasun Zuzendaritza Nagusiko goi-agintari batek dei egin zion Bergaretxe andrea neutraliza zezan, Frantziara ihes egin nahi baitzuen, eta beldur baitziren Frantzian semea bilatzeko egin zitzakeen urratsek nahigabeko desbideratzeak eragingo ote zituzten orduko gai polizialean [...]; besteak beste, Berazadi industrialaren bahiketari buruzko ikerketan. Berazadi ETak hil zuen Bergaretxe andrea komisarioburuaren etxean zegoela. Komisarioburuak gogoan du berak eman ziola albiste hori, eta Bergaretxe andrea negarrez hasi zela*”.

Komisarioak baieztatu zuen “*gertakari horren bidez jakin zuela Pertur existitzen zela eta desagertuta zegoela*”⁹.

Alabaina, Pertur uztailaren 23an desagertu zen, eta Berazadi apirilaren 8an hil zuten. Horrenbestez, ezinezkoa da komisarioak Perturren desagertzearen berri izatea Marta Bergaretxe etxean atxikia zeukan bitartean, apirileko lehen egunetan.

Bestalde, deigarria da aldi berean gertatu zirela Marta Bergaretxeren atxiloketa eta Moreno Bergaretxeren desagertzearekin gurutzatzen den beste egitate bat. Honako hau da:

1976ko apirilaren 4an, Espainiako bi polizia-inspektore desagertu ziren Hendaiaiko zinema baten inguruetan. Gertatutakoaren berri izan zuten bi polizia frantsesak, egun batzuen buruan, kudeaketa-lan batzuk egin hasi ziren, “beren agintariekin kontatu gabe”, polizia espainiar horiek non zeuden jakiteko.

4.4. Marta Bergaretxe desagertutako bi polizia espainiarrekin trukatzeko ekimena

Bi polizia frantsesen mugimenduen berri izan zen ENBATA egunkarian 1976ko abuztuan eta irailean (1976-08-12ko 416. eta 1976-09-02ko 419. zenbakietan) argitaratutako bi komunikazioen bitartez. Horietan esaten da, Errepublikako Segurtasun Konpainietako bi kide, Sánchez eta Taillardat, Hendaiaiko Aire eta Muga Polizian 1976ko martxoan eta apirilean destinatuta zeudenak, harremanetan jarriak zirela euskal errefuxiatuen ingurunearekin, Hendaiaiko zinema baten inguruetan desagertutako Espainiako bi poliziar buruzko informazioa lortzeko: José Luis Martínez Martínez eta Jesús María González Ituero ziren polizia espainiar horiek¹⁰.

Informazioa Baionako Auzitegira iritsi zenean, lekukotasuna hartu zitzairen bi poliziei (Errepublikako Segurtasun Konpainiakoak ziren) eta Abeberry abokatuari, aurretik bi poliziek harengana jo baitzuten informazio bila.

7 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa: Frantziako Estatuan Perturren desagertzeari buruz 1976an eta 1977an egindako diligenziak. *Polizia Judizialaren txostena, 1977ko abuztuaren 22koa*. 119. or.

8 AMIGO, A. “Pertur, ETA 71-76”, Arg. Lur, Hordago argitaletxea, Donostia, 1984, 124. or.

9 Auzitegi Nazionalaren autoa, 2012ko irailaren 20koa, 17. or.

10 Enbata 416. eta 419. zenbakiak. Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa, op. cit, 142- 143 or.

Baionako Polizia Judizialeko inspektoreari egindako deklarazioan, Espainiako bi polizia-inspektoreen desagertzea ofizial egin eta egun gutxiren buruan, 1976ko azaroaren 29an, Maurice Abeberry abokatuak aditzera eman zuen bi poliziek berarengana jo zutela desagertutako bi polizia espainiarrei buruzko informazioa lortzeko.

Abeberryk deklaratu zuen polizietako bat Manuel Sánchez zela, eta hark adierazi ziola “bi polizia espainiarrak ezagutzen zituela” eta eskatu ziola “haien desagertzeei buruzko informazioa emateko”. Abeberry abokatuak esan zion “*ezeren berri ez zuela*” eta une hartan, Sánchezek esan zion “*Espainiako Poliziako Irungo ofizial batekin harremanetan zegoela, eta hori zela-eta aurreratu zezakeela ezen bi polizia espainiarrak berriz agertzen baziren “Moreno andrea askatu egingo zutela”, zeren eta une hartan bertan Espainiako Poliziaren esku baitzegoen*”.

Abeberryk kontatu zuen une haietan ez zekiela zeri buruz ari zen, baina gero ondorioztatu zuela Bergaretxe andreaki buruz ari zela, Perturren amari buruz; izan ere, Espainiako poliziak atxilotuta zegoela konfirmatu zioten¹¹.

Frantziako polizia Manuel Sánchezen deklarazioak abokatuak kontatutako ekintzak berresten ditu; gainera, aipatzen du halakoak “*maila pertsonalean egin nituela, nire agintariak egiteko hori eman gabe [...] kasuari buruzko informazioak lortzea erabaki bainuen*”¹².

Halaber, Sánchezek dio lehenago, xede berarekin, Zokoko apaizarengana jo zuela: “*Zokoko apaizak Moreno andreaken —Frantzian bizi zen errefuxiatu politiko baten ama— kasua aipatu zigun; izan ere, Espainian zaintzapeko egoitzan zegoen. Aukera aprobeztatu nuen Frantzian desagertutako bi polizien eta andreaken arteko balizko truke baten ideia proposatzeko; hartara andreak joan-etorrietan ibiltzeko askatasuna berreskuratuko zuen*”.

Eta jarraitzen du:

“*Abeberry abokatuarekin izandako bigarren hitzorduan, aditzera eman nion harremanetan egona nintzela Espainiako Poliziako funtzionarioekin. Irungo polizia-etxeko inspektoreburu bat aipatu nion. Orduan honako proposamen hau asmatu nuen, kontuan izanda Zokoko apaizak esan zidana: baldin eta bi poliziak onik askatzen bazituzten, Moreno andreak askatasun osoa berreskuratu ahalko zuela pentsa zitekeen*”.

Sánchez Hendaiaiko Aire eta Mugetako Poliziako kidea zen, hara destinatatu baitzuten 1976ko martxoaren 1ean, errefortzu gisa.

Beste polizia frantsesa, Manuel Sánchezekin zegoena, Christian Taillardat zen, aldi baterako Hendaiaiko mugara destinatua, 1976ko apirilaren hasieratik aurrera.

Taillardatek honako hau baieztatzen du: “*Espainiara egindako irtenaldi batzuetan, Irungo polizia-etxeko polizia-inspektore batzuk ezagutu genituen. [...] Beren lankideak desagertu izanaren arazoa aipatu ziguten*”.

Haren deklarazioan, halaber, Larzabal apaizarekin eta Abeberry abokatuarekin izandako elkarriketak aipatu zituen. Azken horri buruz honako hau dio: “*Sánchezek aurreratu zion, gezurretan berriz ere, harremanak genituela Espainiako poliziarekin eta Moreno andreaken askatzea berma genezakeela, baldin eta bi polizia espainiarrak askatzen bazituzten*”¹³.

Deklarazio horietan oinarrituta, ondoriozta dezakegu, lehenbizi, bi polizia frantsesek egindako kudeaketak eta Marta Bergaretxe Ituarteren atxiloteta aldi berean gertatu zirela; bigarrenik, Sánchez eta Taillardat poliziek bazekitela Perturren ama atxilotuta zegoela eta, gainera, harremanetan zeudela Irungo polizia-inspektoreekin.

Hala eta guztiz ere, Polizia Judizialak ez zuen ikerketa gehiagorik egin, eta kasua amaitutzat eman zuen, poliziei egindakoarengatik kargu hartuz eta honako iruzkin hau jasotzen duen txosten batekin:

“*Badirudi Sánchezek eta Taillardatek gehiegizko borondate onez jokatu zutela, baina egia da jokabide horren sendotasunik ezak eta haien baldartasunak zalantzazko egoera bat eragin zuela, nekez aurreikus zitezkeen ondorioekin*”¹⁴.

11 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa, op. cit., 108-109 or.

12 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa, op. cit., 105-107 or.

13 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa, op. cit., 103- 104 or.

14 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa, op. cit., 122. or.

4.5. *La Voz de España* egunkariak ETAko militanteen aurkako ofentsiba bat iragarri

1976ko maiatzaren 30ean *La Voz de España* egunkariak “Hamar milioi hil zituztenak hiltzeko” izenburupean ETAko militanteen aurkako ofentsiba bat iragarri zuen, “ETAko buruzagiak hiltzeagatik 10 milioi pezeta ordaintzeko prest zegoen erakunde baten eskutik”. Hainbat izen aipatzen dira, eta horien artean Eduardo Moreno Bergaretxe *Pertur* dago, ETApn-ko zuzendaritzako kidea; eta atentatu batzuk ekartzen dira gogora. Orrialde osoko erreportajea Enrique Sanz Martínek sinatuta ageri da¹⁵.

4.6. José Amedoren liburuan bahitutako polizia-inspektoreei buruz egiten den aipamena

José Amedoren “*La conspiración: el último atentado de los G.A.L.*” liburuan aipamen batzuk ageri dira bi polizia-inspektoreen bahitzeari buruz eta eskuin muturreko taldeek Ipar Euskal Herrian errefuxiatuta zeudenen aurka ustez aurrera eramanak zituzten ekintzei eta errepresaliei buruz. Batallón Vasco Español taldeak eta B.P.S.ko kide batzuek “*beren kabuz*” burututako “*terrorismoaren aurkako*” jarduerak aipatzen ditu Amedok. Honako hau ere baieztatzen du: “*Batallón Vasco Españolak jarduten zuen une berean, B.P.S.ko kide batzuek sartu-irten batzuk egiten zituzten Frantzia hegoaldeko mugako herrietan*”. Liburuan, hain zuzen, ekintza horietako batzuk kontatzen dira.

Halaber, kontatzen da 1976ko apirilean Donostian ikastaro bat egin zuela, eta bertan José Luis Martínez inspektorearekin batera hartu zuela ostatua. Gero, aipatzen du bi funtzionario desagertuta zeudela eta nola, beste polizia lagun batzuekin batera, honako hau erabaki zuten: “*gauetz armatuta joango ginen Frantzia hegoaldera erakunde terroristako burukide batzuk atxilotzera, maiz egoten ziren lokal batzuetan*”. *Gure asmoa zen haiei presioa egitea gure bi lankideak aska zitzaten lortzeko*”¹⁶.

4.7. Indarkeria politikoa 1975. eta 1976. urteetan

Aipatutako gertakariez gainera, 1975. eta 1976. urteak bereziki nahasiak izan ziren, indar parapolizialek eta eskuin muturreko taldeek, Espainiako polizia-zerbitzuen laguntzarekin, euskal errefuxiatuen aurka eta ETAko ustezko kideen aurka Ipar Euskal Herrian aurrera eraman zituzten ekintza terrorista ugariengatik.

Halaber, Bidasoaz bestaldean, urte horietan eragin zituzten hildako gehien ETAm-k eta ETApn-k, talde parapolizialek eta Poliziak eta Guardia Zibilak. Iturri batzuen arabera, 1975. urtean, ETAm-k eta ETApn-k 16 pertsona hil zituzten; Guardia Zibilak eta Poliziak beste 12 hil zituzten, eta BVAk beste 2 erail zituen. Hurrengo urtea are ankerragoa izan zen. 1976an, ETAn bi adarrek 30 pertsona erail zituzten, Guardia Zibilak eta Poliziak 14 hildako eragin zituzten eta indar parapolizialek beste 3 pertsona erail zituzten. 1975ean eta 1976an, guztira, 59 pertsona hil ziren euskal gatazkaren indarkeriaren ondorioz¹⁷.

Hemen Espainiako eskuin muturreko hainbat siglatako taldek Ipar Euskal Herrian egindako atentatuen adibide batzuk aipatzen ditugu, txosten honen xederako daukaten garrantzia dela eta:

- Liburu-denda batzuetan jarritako lehergailuak: Hendaiako Mugalde (1975eko apirilean, maiatzean eta ekainean), Baionako Nafarroa (1975eko ekainean eta uztailan) eta Donibane Lohizuneko Axular eta M. Marie (1975eko abuztuan).
- Jesús María Zabarteren neska-laguna bahitzeko ahalegina.
- ETAko buruzagizat jotzen ziren pertsonen aurkako atentatu selektiboak hasi ziren: Josu Urrutikoe-txea *Josu Ternera* (1975eko ekainaren 5ean); Txomin Iturbe (1975eko azaroaren 16an); Pérez Re-villa (1976ko martxoaren 6an).

15 MARTIN, E.S. “Diez millones para matar a quienes mataron”, *LA VOZ DE ESPAÑA*, 1976ko maiatzaren 30a.

16 AMEDO, J. *La conspiración: el último atentado de los G.A.L.* Espejo de tinta arg. Madril. 1988.

17 ARGITUZ. Giza Eskubideen aldeko Elkarte. 2016.

Espainiako Gobernuak ekintza horiek “*inkontrolatuei*” egotzi zizkien, baina horietako batzuk erreibindikatu ere egin ziren: hasiera batean, ATE (Antiterrorismo ETA) siglak erabili ziren, eta gero Triple A (Alianza Apostólica Anticomunista) eta BVE (Batallón Vasco Español). Gertatu zen, baita ere, ekintza bera bi erakunde desberdinek erreibindikatzeko: AAA eta BVE, esate baterako, hala gertatu baitzen hain zuzen ere Perturren bahiketarekin. AAAk erreibindikatu zuen Bartzelonako *Cifra* agentzian eta BVEren “Emilio Guezala” komandoak, berriz, Bilboko *El Correo* egunkarian¹⁸.

Horri dagokionez, adierazgarri gertatzen da “*La Trama de los G.A.L.*”¹⁹ liburuan esaten dena:

“*Batallón Vasco Españolen lehen agerpen publikoa (ETA militarrek hil berri zuen eskuin muturreko ideologia-ko autobus gidari baten izena, «Emilio Guezala», gehituta), 1976ko uztailaren amaieran izan zen, Eduardo Moreno Bergaretxe, Pertur, ETA politiko militarreko buruzagiaren desagertzea eta heriotza erreibindikatzeko. Gero sortuko zen eztabaidak —bere jarduketa-ildoarekin ados ez zeuden erakundeko kideetako batzuek hil ote zuten Pertur— eta ekintza hori bera garai hartan askoz ere ospetsuagoak ziren eskuin muturreko beste sigla batzuek (ATE, Triple A) erreibindikatu izanak, berekin ekarri zuten inork aintzat ez hartzea arestian aipatutako izen ezezagun hori, garrantzi oso nabarmeneko ekintza hori bere gain hartzen zuena”.*

Halaber, egiaztatuta dago Espainiako Poliziak Ipar Euskal Herrian esku hartu zuela; esate baterako, Donibane Lohizuneko Mingo tabernaren aurkako atentatuko (1975eko maiatzaren 24a) ustezko antikuarioren (Martínez) kasuan. Halaber, ETAn infiltratutako Cocoliso ezizenaz ezagutzen zena (Jesús Arrondo Martín) atxilotu zuten²⁰.

4.8. ETApM-ren egoera 1976an

Eduardo Moreno Bergaretxe desagertu aurreko egitateak aztertzen ari gara, eta horien harira ezin nahitaez aipatu behar dugu ETApM erakundeak garai hartan bizi zuen krisi-egoera.

Ángel Amigoren liburuak osorik jasotzen du ETApM-k 1978ko urtarrilean *Diario 16* egunkarira igorritz argitara eman zuen komunikatu bat. Komunikazio horretan hauteman daiteke 1976an nolako gatazka-giroa zegoen erakundearen barruan.

Ohar horretan oinarrituko gara, orain, desagertu aurreko egunetan Perturren inguru politiko eta militarrean izan ziren gertakari batzuk kontatzeko.

Urte hartan tentsio handiak izan ziren ETApM-ren barruan, Francisco Franco diktadorea hil ondoren sortutako jarrera ideologiko desberdinen ondorioz. Une kritikoenetako bat gertatu zen 1976ko martxoaren 18an ETApM-k egindako Ángel Berazadi industrialaren bahiketari eman zitzaion amaierari buruzko desadostasunen ondorioz. Berzadiren hilotza apirilaren 8an agertu zen Elgoibar inguruko ezponda batean, garunean tiro bat zuela.

Berzadiren hilketak ika-mika eta desadostasun larriak eragin zituen polimilien zuzendaritzaren —Pertur eta Erreka kide zireneko bulego politikoa— eta borroka armatuaren jarraipenaren eta nagusitasunaren aldeko apustua egiten zutenen linearen artean; azken hori “Bereziak” deitutakoekin identifikatuta zegoen, eta honako hauek zituen buru: Miguel Ángel Apalategi *Apala*, Francisco Mujica Garmendia *Pakito* eta Eugenio Etxebeste *Antxon*. Azken hori aparatu politiko militarren burukidea izan zen 1976ko apirilera arte.

Gauzak horrela, Perturrek, une hartan, antolamenduko beste agintari batzuekin batera, agintarien konferentzia bat (Biltzar Ttipia) egiteko eskatu zuen, bertan “Berzadi” kasuan gertatua argitzeko, erakundearen ibilbide osoa aztertzeko eta Biltzarra egin aurretik zuzendaritza berria hautatzeko. Biltzar Ttipiaren bilkura hori 1976ko maiatzean deitu zen.

Bilkura hasi baino bi egun lehenago, ordea, Zuzendaritza Batzordeko bi kidek eta Segurtasun Batzordeko arduradun batek, ETApM-ko zuzendaritzako gainerakoek ezer ere ez zekitela, Pertur bahitu zuten, eta diziplinarik eza eta informazio-ihesak leporatu zizkieten, eta Biltzar Ttipiaren hasierara joatea eragotzi zioten.

18 Berraztertzeko errekurtsioan jasotako zerrenda, op. cit., 10. or.

19 MORALES, J.L.; TODA, T., IMAZ, M., *La Trama de los G.A.L.* Revolución arg., Madril, 1988, 27-29 or.

20 Berraztertzeko errekurtsioan jasotako zerrenda, op. cit., 11. or.

Biltzar Ttipiaren lehenengo saioan, bildutakoetatik gehienek Pertur bertan egotea eskatu zuten. Azkenean, atxikia zegoen tokira joan ziren batzuk —Simón Loyola erbesteratuak Auzitegi Nazionalan deklaratu zutenaren arabera, Eugenio Etxebeste eta gogoan ez duen besteren bat—, biltzarrera eramateko. Topaketa hartan ETApM-ren zuzendaritza berria hautatu zuten; hain zuzen ere, zuzendaritza horrek, aurrerago, Perturri etxebizitzaz aldatzeko gomendatuko zion, “Komando Berezien” balizko errepresaliak zirela eta²¹.

Eugenio Etxebeste *Antxonek* honela azaldu zuen Andreu epailearen aurrean kide batzuek Pertur bahitu izana:

“ETApM-ren zuzendaritzak jakin zuen bandako presoekin aparatuak jarraitu beharreko ildoaz beste ildo batetik ari zela Pertur, zuzendaritzari “zubiarena eginez” espetxeekiko harremanetan; hori zela eta, Bulego Politikoari diziplinarik eza leporatu zitzaion, erakundearen zuzendaritzaren eskuetatik iragan ez ziren harreman batzuk edukitzeagatik. Hori dela eta, Perturren “behin-behineko etxeko atxiloketa” erabaki zen, ikerketa hori egiteko. “Atxiloketa” hori “agintarien konferentzia” bat izan zen garai berean gertatu zen; hain zuzen ere, VII. Biltzarra prestatzeko bilkuran. Etxebestek adierazi zuen ETAREN zuzendaritzak jakin zuela Bulego Politikoa, zuzendaritzaren bideetatik kanpo, noizbehinkako harremanak izaten hasia zela Espainiako Gobernuarekin; eta Juan María Bandrésekin eta Manuel Fragarekin bildua zela horretarako. Perturren etxeko atxiloketa eta “isolamendua” erabaki ziren, agintarien konferentzian horri guztiari buruzko azalpenak eman zitzaizkien eta konferentziak erabaki zezan gertatzen ari zena larria zen ala ez”²².

ETApM-ren barruko liskar-giroaren erakusgarri, 1976ko uztailaren 11n, desagertu baino hamahiru egun lehenago, Perturrek bere neska-lagun Lourdes Auzmendiriri idatzi zion gutuna dago. Gutunean esaten zuen “ez zegoela ondo”.

Gutunean, bere iritzia ematen zuen *Berezien* buruzagien jarduketari buruz eta erakundean sortutako konspirazio-giroari buruz:

“Astakirten horiek halako giro bat sortu dute erakundean, non Ipar Euskadin ETA bihurtu baitute ez iraultzaileen kolektibo bat, polizia-estatu bat baizik, zeinean nor bere auzoaren susmoa baitu, eta azken horrek bere auzoarena”.

Idatzian kritika gogorrak egiten ziren barne-eztabaida ezari buruz.

“[...]... konspirazioen infernuko dinamika horretatik, asmakeriatik, gezurretik eta abarretatik ihes egin nahi dut, aurkari politikoak eztabaida politikoaren bidez beharrean diziplinaren, segurtasunaren izenean egindako maniobra zikinen bidez desagerraraztea bilatzen duen dinamika horretatik...”²³.

5. Desagertzearen ondoren

5.1. Donibane Lohizuneko eta Donostiako polizia-etxeetan aurkeztutako salaketak.

1976ko uztailaren 24ko arratsaldean, María Asunción Bergaretxe, Eduardo Moreno Bergaretxeren izeba, Polizia Nazionalaren Donibane Lohizuneko polizia-etxera joan zen, iloba desagertua zela deklaratzera. Goiz hartan, telefono-dei anonimo bat jaso zuen, emakume ahotsa zuena, eta hartan aditzera eman zioten Donibane Lohizunera joan behar zuela, Eduardo Moreno Bergaretxe desagertuta zegoelako²⁴.

Egun hartako gauean, 23:45ean, polizia-etxe horretara Francisco Mujika Garmendia *Pakito* joan zen, Donibane Lohizunen errefuxiatuta zegoen Eusko Jaurlaritzako ministro ohi Telesforo Monzonekin batera. Mujika Garmendiak deklaratu zuen, bezperan, 1976ko uztailaren 23an, 11:00ak aldera, Vauban tabernatik hurbil

21 AMIGO, A. op. cit., 147-151 or.

22 Auzitegi Nazionalaren autoa, 2012ko irailaren 20koa, 7- 8 or.

23 Auzitegi Nazionalaren autoa, op. cit. 9- 10 or.

24 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 164. or.

egin zuela topo Eduardo Morenorekin, eta azken horrek galdetu ziola ea Hendaiara joatekoa ote zen eta Behobiaraino eramango ote zuen. Pakitok baietz esan zion eta berehala joan ziren, lagun baten Renault 5 batean. Hiritik atera baino lehen, bi errefuxiarekin egin zuten topo; haien izenak ez dakizki, baina horietako bati *Trotsky* esaten zioten. Trotskyren lagunak Perturri galdetu zion ea José Mari ikusia zuen, eta hark ezetz esan zion, eta alde egin zuten. Moreno Bergaretxe Behobiatik hurbil utzi zuen, Hendaiara doan errepidean. Bidaian errefuxiatu politikoekin zerikusia zuten gaiei buruz hitz egin zuten, eta Mujika Garmendiari *"iruditu zitzaion"* Bergaretxek hitzordu bat zuela Behobian.

Pakitok gehitzen du gau hartan bertan jakin zuela hura desagertua zela, etxera joan zitzaion errefuxiatu batek esanda²⁵.

Mujika Garmendiak, bere lekukotasunean, ez zuen aipatu Apalarekin batera egona zela eta hirurak elkarrekin joan zirela Behobiaraino.

Urte batzuk geroago, Auzitegi Nazionaleko Andreu epailearen aurrean inputatuta zegoela, inkulpatu gisa deklaratu zuen Apalak eta berak Perturrekin egin zutela topo Donibane Lohizuneko erdigunean, eta gero autoz eraman zutela Behobiaraino²⁶.

Uztailaren 24ko gau hartan bertan, Biriaturuko mugako polizia Moreno Bergaretxe senar-emazteei bidea moztu zien, beren semeari gertatutakoari buruzko argibide bila Donibane Lohizunera zihoazela.

Dokumentazioa behar bezala zegoen arren, ez zieten pasatzen utzi. Poliziak esan zuen bazuela bahiketaren berri. Alabaina, Espainian desagertzea salatu gabe zegoen oraindik, eta ordu gutxi batzuk baizik ez ziren iraganak Perturren amaren ahizpa, María Asunción Bergaretxe, Donibane Lohizuneko polizia-etxean egon zenetik, gertatutakoaren berri emateko.

Poliziaren eskutik jasotako tratuari buruzko azalpenak eskatzeko, gau hartan, Biriaturuko mugan, Moreno Bergaretxeren gurasoek salaketa bat aurkeztu zuten Donostian zeuden agintari espainiarren aurrean. Gorabehera hori hilabete geroago itxi zen, sinesgarritasun eskaseko azalpen ofizial batekin, alegia, Moreno Bergaretxe senar-emazteei ez zietela utzi muga igarotzen *"gehiegi tematu zirelako"*²⁷.

J.A. Lekuona kazetariak Biriaturuko mugan gertatutakoari buruz eman zuen bertsioa, *La Voz de España* egunkariak egun batzuk geroago argitaratua, nabarmen desberdina da Moreno Bergaretxe senar-emazteek deklaraturakotik. Honako hau da kronikaren testua²⁸:

"ETAko buruzagi Moreno Bergaretxeren desagertze misterioetsuaren berri halabeharrez izan dute Irunen larunbat honetan. Autobidean Perturren gurasoak eta anaia bat autoz Frantziara zihoazenean izan da.

Biriaturuko justaposizio-araubideko gunean zerbitzuan zegoen funtzionario bat errutinazko eta kontsultako tramitea egitera joan da, eta Moreno Bergaretxeren senideak, semearen bahiketarengatik larrituta eta oso kezkatuta, Irunera itzuli dira".

Bi egun geroago, 1976ko uztailaren 26an, Perturren gurasoak, Álvaro eta Marta, Polizia Nazionalaren Donibane Lohizuneko polizia-etxera joan ziren, beren semearen desagertzea ofizialki salatzeraz.

Haien deklarazioak jasotzen du aurreko egunean Donibane Lohizunera joanak zirela eta beren semearen lagun politikoen bitartez jakin zutela Eduardo Moreno Bergaretxek telefono-dei bat jaso zuela, hirugarren baten bitartez, eta eskatu ziola Donibane Lohizuneko "Consolation" tabernara joateko, norbaitekin biltzeko. Gehitzen dute itxura guztien arabera ez zela tabernara joan, eta aipatzen dute gero bere lagun batzuei eskatu ziela Behobiara hurbiltzeko.

Adierazten dute beren semeak hiru mehatxu jasoak zituela, eta hirurak salatuak zituela polizia-etxe hartan bertan. Deklaratu zuten, halaber, litekeena zela ETAREN aurkako taldeek edo OVAAK bahitu izana. Perturren gurasoek baieztatu zuten beraiek ere mehatxu bat jaso zutela, Gerrilleros de Cristo Rey taldeak sinatua, eta adierazi zuten 1975eko azaroaren 20an atentatu bat jasan zutela.

25 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 162. or.

26 Auzitegi Nazionalaren autoa, 2012ko irailaren 20koa, 18. or.

27 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 96. or.

28 LECUONA, J.A., "Misteriosa desaparición de un dirigente de ETA". *LA VOZ DE ESPAÑA*, 1976ko uztailaren 27a.

Senar-emazteen deklarazioa jasotzen duen aktaren amaierako zatian²⁹, ohar bat dago, zeinean aipatzen baita Moreno Bergaretxe bilatzen ari direla Ángel Berazadi 1976ko martxoaren 18an bahitu eta hiltzeari buruzko ikerketaren barruan.

Egun horietan eta hurrengoetan Frantziako poliziak ikerketa batzuk egin zituen, eta ez zuen inongo daturik aurkitu Moreno Bergaretxeri gertatutakoari buruzko pistarik ematen zuenik.

Egindako ikerketei esker, jakin ahal izan zen, Consolation tabernako jabeen bitartez, Pertur ez zela establezimendu horretan egon uztailaren 23an (ostirala), eta ohiko bezeroa ere ez zela.

Joncaux industrialdearen miaketa polizialak ez zuen jasotako informazio bat berretsi; informazio horren arabera, desagertutakoa bahituta egon zitekeen inguru hartako hangarren batean. Poliziak, halaber, zenbait egiaztatze-lan egin zituen Behobiako eta Biriaturko hainbat establezimendutan, bai eta autobideko Hendaia-ko eta Behobiako muga-igarobideetako funtzionarioekin ere³⁰.

Halaber, uztailaren 26an bertan (astelehena), Eduardoren anai-arrebek salaketa bat jarri zuten Donostiako Guardiako Instrukzio Epaitegian, non eskuin muturreko kideak jotzen baitzituzten desagertzearen egiletzat.

Punto y Hora aldizkariak salaketaren testua argitaratu zuen. Hartan aipatzen zen, oinarriidun arrazoiak bazeudela uste izateko “ATEko, OVAAko edo izen desberdinekin Espainiako lurraldetik operatzen zuten antzeko ideologiako beste talderen bateko eskuin muturreko komando batek bahituta zegoela.”

Salaketa oinarrietan aipatzen dute Perturrek “*orain dela gutxi heriotza-mehatxuak jaso dituela, bere familiak bezalaxe, eskuin muturreko talde horiek idatzitako ohar batean*”, eta argudiatzen dute, halaber, Frantziako poliziak ez zuela Pertur aurkitu bere lurraldean, “*ikerketa xeheak eginda ere*”. Argitalpen horren beraren arabera, salaketarekin batera, datu gisa, E.S. Martínek sinatutako “*Diez millones para matar a quienes mataron*” izenburuko artikulua aurkeztu zuten, *La Voz de España* egunkarian maiatzaren 30ean argitaratua. Hari buruz diote “*krimenerako dei bat dirudiela, eta salatzaileen anaia berariaz aipatzen duela*”³¹.

5.2. Erreibindikazioak

Egunkarietan jasotakoaren arabera, Perturren bahiketa ATE (Antiterrorismo ETA) eta Triple A (Alianza Apostólica Anticomunista de España) taldeek erreibindikatu zuten, “Cifra” albiste-agentziari 1976ko uztailaren 26an egindako dei baten bitartez. Esandakoan, honako hau adierazi zuten:

“Ez gara masen mugimendu bat, baizik eta gerrillari talde bat, gerrillarako militarki entrenatua eta helburu bat baduena: KGBk babestutako nazioarteko terrorismo marxistari aurre egitea”³².

El Correo Español-El Pueblo Vasco egunkariak, 1976ko uztailaren 31n, Batallón Vasco Españolen komunikatu bat jaso zuen, zeinean talde horrek bere gain hartzen baitzuen Perturren hiketa.

“*Eduardo Moreno Bergareche, Pertur, hil egin dugu eta Nafarroako herri batean lurperatu dugu. Ez da azkena izango. Begia begi truk. Gora Espainiaren batasuna*”.

5.3. Trukeari buruzko zurrumurrua

Oraingoan, *Unidad* arratsaldeko egunkariaren 1976ko uztailaren 28ko zenbakiaren lehenengo orrialdeko berrian agertu zen berriz ere trukearen deia.

Kronikak honako izenburu hau dauka: “*Berririk ez Perturri buruz*”, eta azpтитuluan susmo bat jasotzen du, alegia, litekeena zela bahituta izana urte hartako apirilaren 4an desagertutako José Luis Martínez eta Jesús González polizia-inspektoreekin trukea egiteko. Zehazki, honako hau zen goiburua: “*ETAkidea bahitutako bi polizien truke?*”

29 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit. 160. or.

30 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 149- 154 or.

31 1976 “La misteriosa desaparición de Pertur”. *PUNTO Y HORA* 9. zk./1976ko abuztuaren 15a, 24-25 orrialdeak.

32 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 99-100 or. (*DIARIO VASCO*, 1976ko uztailaren 27an).

Informazio horrek jasotako hipotesia aipagarria da, kontuan hartuta iturria *Radio Nacional* dela, zeina jatorri polizialeko informazioen ohiko hedatzailea baitzen. Eta honelaxe dio:

“Alde batetik, errealitate-zantzurik duten albisterik ez dago batere; bestetik, zurrumuruak minuturo sortzen ari dira. Azkena Donostiako Radio Nacionalek eman du, iradoki baitu aukerak badaudela pentsatzeko hura bahitu duen eskuin muturreko ustezko taldeak adostasun batera iritsi nahi duela ETArekin, antzeko beste gai batean nahastuta baitago. Eta adostu beharrekoa hau izango litzateke: “Pertur” askatzea Donostiako kidegoari atxikitako José Luis Martínez Martínez eta Jesús María González Ituero polizia-inspektoreak askatzearen truke. Hendaia zinema baten inguruetan desagertu ziren azken horiek, joan den apirilaren 4ko arratsaldean. Hain zuzen ere, astebete barru, abuztuaren 4an, laugarren hilabetea beteko da bi pertsona horiek desagertu zirenetik edo bahitu zituztenetik. Halaber, esan behar dugu ordutik ezer ere ez dela jakin bi polizia horiek pairatu duten edo pairatzen ari diren egoerari buruz”³³.

5.4. ETApM-ren baitan egindako ikerketak

ETApM-ren zuzendaritzak, Moreno Bergaretxe desagertu izanaren berri izan zuenean, militante guztiei dei egin zien elkarrizketa bat egiteko; elkarrizketan, galdetu zitzaion ea horietako bakoitza non zegoen Pertur desagertu zen egunean. ETApM-ko kide Fermin Imazen deklarazioaren arabera, bera izan zen, Joseba Aulestiarekin batera, Apalaren eta Pakitoren lekukotza jasotzeaz arduratu zena. Biek ere esan zioten Perturrek eskatu ziela Behobiara hurbiltzeko, Trotskyrekin topo egin zutela eta Pertur Behobian utzi zutela³⁴.

ETApM-ren zuzendaritzak egindako barneko inkesta horren ondorioak 1978ko urtarrilean argitaratutako komunikatu batean eman ziren ezagutzera. Komunikatu horren erreferentzia arestian jaso dugu txosten honetan.

Bestetik, Francisco Mujika Garmendia *Pakitok* Andreu epailearen aurrean deklaratu zuen bezala, Pertur desagertu zen arratsaldean ez Miguel Ángel Apalategi *Apala*, ez bera ez ziren etxetik atera. Gau hartan bertan, ETApM-ko burukideren bat joan zitzaion etxera; ez du gogoan nor. Galdetu zien zer edo zer ba ote zekiten Perturri buruz, eta esan zien Donibane Lohizuneko Jendarmeriara joan behar zutela deklaratzera, haren desagertzeari buruzko salaketa bat baitzegoen. Apalak dokumentazioa behar bezala ez zuenez, erabaki zen beste hura izatea Frantziako polizia-zerbitzuetara joango zena. Jendarmerian hiruzpalau pertsona elkartu ziren; horietako bat Lourdes, Perturren neskalaguna. Bera izan zen Perturren arropa eramane zena, jendarmeei emateko³⁵.

5.5. ETApM-ren VII. Biltzarra. 1976ko abuztu-iraila

Urte hartako irailean, ETApM-k, VII. Biltzarra amaitu ondoren, polizia-zerbitzuei leporatu zien bahiketaren ardurua eta ustezko hilketa, oinarri hartuta poliziak eta Guardia Zibilak mugan, Pertur desagertu ondoren, egin zituzten mugimendu susmagarriak³⁶.

VII. Biltzar horretan, zeinera Lourdes Auzmendi ere joan baitzen, Perturren desagertzeari buruz hitz egin zen. Perturren neska-lagunak Andreu epaileari aditzera eman zion moduan, *“une batean, Eduardoren desagertzearen gaia atera zen, eta bertaratuetakoz batzuek beren poztasuna adierazi zuten, bertan ez zegoelako”*. Hori ikusita, Lourdesek lokaletik alde egin zuen, eta Argalarekin eta Txominekin egin zuen topo. Horiek Biltzarrera gonbidatuta zeuden, baina aretotik ateratzeko eskatu zieten, barneko gai bat jorratu behar zuten-eta. Argala eta Txomin Lourdes kontsolatzera hurbildu ziren, *“eta esan ere egin zioten sinetsita zeudela “erakundearen” barruko jendea zela Eduardo “desagerrarazi” zutenak”*. Auzmendik deklaratu zuen, halaber, *“behin etakide ohi batekin hitz egin zuela, Nikaraguan Apalarekin egondako batekin, eta hark kontatua ziola Pertur beraiek bahitu zutela, eta hil eta itsasora botatuta zutela”³⁷.*

33 “Nada nuevo sobre Pertur. ¿Canje del etarra por los dos inspectores de policía secuestrados?” *UNIDAD*, 1976ko uztailaren 27a.

34 Auzitegi Nazionalaren autoa, 2012ko irailaren 20koa, 11. or.

35 Poliziaren autoa, 18-19 or.

36 AMIGO, A. Op. cit., 143. or.

37 Auzitegi Nazionalaren autoa, 2012ko irailaren 20koa, 9- 10 or.

Luis R. Aizpeolea kazetariak *El País* egunkarian idatzitakoaren arabera, epaileak etakide ohi bat deitu zuen deklaratzera, ustez Apalarekin Nikaraguan egon zena, baina epaileari ez zion berretsi Lourdesi kontatutakoa³⁸.

5.6. Frantziako diligentziak

Baionako Lehen Auzialdiko instrukzio-epailea, Jean Michel Larque, da Eduardo Moreno Bergaretxeren desagertzea ikertzeko ardura duena. 1976ko uztailetik 1977ko azaroaren 30era egin zuen lan, orduan eman baitzuen kasua largesteko epaia.

1977ko abuztuaren 22an, Bordeleko Eskualdeko Polizia Judizialak Perturren desagertzearen kasuari buruz egindako ikerketen berri eman zuen txosten batean.

Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioaren arabera, zeinean egindako ikerketen laburpen gisa jasotzen baita 1977-08-22ko txosten hori, instrukzioak hiru ekintza nagusi izan zituen:

*a. Errepublikako Segurtasun Konpainietako bi poliziak, Sánchezek eta Taillardartek, 1976ko martxotik apirilera egindako kudeaketak*³⁹

Polizien deklarazioen arabera, haiek lan egin zuten bi inspektore espainiar desagertuen —beraiek ez zituzten ezagutzen— eta Irungo polizia-etxean atxilotuta zegoen Perturren amaren arteko trukea lortzeko. Betiere, *“beren gainekoek ezer ere ez zekitela”*⁴⁰.

Aipatutako txostenak dio poliziei kargu hartu zietela eta gehitzen du *“badirudiela gehiegizko borondate onaz jokatu zutela, baina egia da jokabide horren ahuldadeak eta haien baldartasunak zalantza egoera bat eragin zuela, nekez aurreikus zitezkeen ondorioekin”*⁴¹.

Idazki berean, jasota dago, halaber, familiaren eta lagunen testigantzen arabera, Pertur oso zuhurra zela eta sekula ere ez zela bakarrik ateratzen; horrenbestez, *“jo daiteke bahiketa desagertuaren hurbileko baten konplizitatearekin —hau da, traizioarekin— gertatu zela, Perturren konfiantza osokoa zen baten konplizitatearekin”*⁴².

Bestalde, Frantziako Polizia Judizialaren agirian, baieztatzen da ezin zaiela sinesgarritasunik eman *“Alianza Apostólica Anticomunista de España”*ren kasuan bahiketa erreibindikatzeko eta *“Batallón Vasco Español, Comando Emilio Guesala”*ren kasuan, bahiketa eta hilketak erreibindikatzeko —Pertur Nafarroan lurperatuta zegoela ere gehitzen zuen— igorritako komunikatuei, *“informazio faltagatik”*⁴³.

b. Agintari Judizial Espainiarrei egindako Nazioarteko Erreguzko Eskara

Larque epaileak Nazioarteko Erreguzko Eskara bat egin zien Espainiako Agintari Judizialei, 1976ko abenduaren 3an. Eskararen, magistratuak esaten du *“litekeena dela Pertur eskuin muturreko nahiz ETArekin aurkako komando baten edo OVAArekin (Organización de Voluntarios Antiseparatistas y Antiterroristas) edo Guerrilleros de Cristo Rey-ren komando baten biktima izatea”*, eta eskatzen du ikerketa bat egin dadila erakunde horietako pertsonen haren desagertzean izandako parte-hartzea zehazteko. Oro har, eskatzen du ikerketa bat egin dadila errefuxiatua aurkitzeko edo gertatutakoa zehazteko.

Espainiako agintarien erantzuna Segurtasun Zuzendaritza Nagusiaren txosten bat izan zen, 1977ko otsailaren 19ko data duena. Hartan, honako informazio hauek nabarmentzen dira⁴⁴:

38 AIZPEOLEA, L.R. “¿Qué fue de Pertur?” *EL PAÍS*, 2016ko uztailaren 23a.

39 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 6.,7. eta 8. or.

40 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 121. or.

41 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 122. or.

42 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 120. or.

43 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 121. or.

44 Segurtasun Zuzendaritza Nagusiaren Espainian egindako txostena, 1977ko otsailaren 19an. Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. 130- 131 or.

Moreno Bergaretxe deskribatzen du esanez ETaren V. Biltzarrean “*eragin handia*” izan zuen etakidea zela, bulego politikoaren arduraduna, eta baieztatzen du Espainian egindako ikerketek “*ez dutela aukerarik eman desagertze honen egilea edo egileak aurkitzeko*”.

Agiriak gutun anonimo bat aipatzen du, “Alianza Apostólica Anticomunista de España” erakundeak sinatua eta *La Voz de España* egunkarian jaso zena. Zehazten da gutun horretan, Ñ letrari tileta falta zaiola, eta hori dela-eta jotzen dute ez dela erabili Espainian fabrikatu eta erabiltzen den makina bat.

Adierazten dute “*ez dagoela jasota*” aipatutako erakunde hori existitzen denik. Baina honako hau aipatzen dute:

“*hori dela eta, joan den uztailaren 26an desagertuaren anai-arrebek salaketa bat aurkeztu zuten Donostiako 3. Instrukzio Epaitegian, “Orden Nuevo” erakundeko Adolfo Hitler VI. Komandoa deitutako talde batengandik jasotako mehatxuen ondorioz*”⁴⁵.

Segurtasun Zuzendaritza Nagusiak igorritako dokumentazio hori ez dator bat ordura arte hedabideetan erreibindikazioei buruz aditzera emandakoarekin. “Alianza Apostólica Anticomunista de España” erakundeak bahiketa erreibindikatu zuen *Cifra* agentziari egindako telefono-dei baten bidez, eta ez *La Voz de España* egunkariari igorritako gutun batez. Horrenbestez, gutxienez ere bitxia da erreibindikazioaren kontakizun hori eta tipografiaren analisisa⁴⁶.

Halaber, Moreno Bergaretxeren anai-arrebek uztailaren 27an Donostian jarritako salaketan, ez da aipatzen ez “Alianza Apostólica Anticomunista de España”, ez eta “Orden Nuevoko Adolfo Hitler VI. Komandoa” ere, Segurtasun Zuzendaritza Nagusiak igorritako informazio horretan aipatzen den moduan. Gainera, azken erakunde hori ez da lotuta ageri desagertzearen hurrengo egunetan gertatu ziren erreibindikazioekin.

Bitxiena da Perturren desagertzearen ondorengo hilabeteetan, azaroaren 15ean, haren arreba Marta Moreno Bergaretxek jasotako heriotza-mehatxua “Orden Nuevoko Adolfo Hitler VI. Komandoak” izenpetuta dagoela, aurrerago aipatuko dugun moduan.

Bistan da agiria nahasgarria dela eta errealtateari gutxi egokitzen zaiola erreibindikazioei eta familiak Donostian egindako salaketari dagokienez, baina ausarta dela, berriz, bahiketaren egileei buruzko hipotesi bat egiterakoan.

Segurtasun Zuzendaritza Nagusiak Frantziako agintari judizialei igorritako txostenak aipatzen du “*errealitate handiagoko zantzuak dauzkan beste hipotesi baten arabera, Pertur desagerrarazi zuena Miguel Ángel Apalategi etakidea izan zela*”⁴⁷.

Agiriak bertsio horren alde egiten du, eta horretarako oinarritzat hartzen du ETaren biltzarra prestatzeko bilera, 1976ko maiatzean, “Bereziek” —zeinak Apalaren zuzendaritzapean baitzeuden— Perturren dimisioa eskatu zutela, eta bilera hartan bertan, Perturrek gogor kritikatu zuela Berzadiren heriotza, zeina Apalak eta bere komandoak hil baitzuten, txosten horren arabera.

Halaber, honako hau dio: “*agintari politikoek, VII. Biltzarra egin arte, zenbait agiri egin zituzten ETak hartu behar zuen ikuspegi berriari buruz, masen alderdi politiko gisa*”. Baieztatzen du “Otsagabia” azterlana lehenbizi uztailaren 7an eta gero abuztuaren 4an argitaratu zela, “*nahiz eta Perturrek ez zuen amaitzerik izan, zenbait egun lehenago desagertu baitzen*”. Halaber, nabarmentzen du “*haren edukia Apalak defendatzen zuen jokabidearen guztiz aurkakoa zela*”.

Eta nabarmentzen du Moreno Bergaretxeren desagertzeari buruz Hazparnen egindako VIII. Biltzarrean “*gertatu zen isiltasun adierazgarria*”, bai eta Otsagabia ponentziaren edukiak izan zuen babes zabalak Apalaren taldean eragindako inpaktu handia.

Hartara, Segurtasun Zuzendaritza Nagusiak igorritako agiria honako hau esanez amaitzen da:

“*badirudi zantzu horiek babesten dutela erakundearen muturreko atalak Perturren desagertzean zuzenean esku hartu zuela dioten hipotesia, Pertur oztopo sendoa izan zitekeen-eta jarduera terroristekin jarraitu nahi zutenentzat*”⁴⁸.

45 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit. 130. or.

46 Diario Vasco, 1976ko uztailaren 27a.

47 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 130-131 or.

48 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 131. or.

c. Miguel Ángel Apalategiren lekukotza

Azkenik, epaileak agindu zuen Miguel Apalategi *Apala* 1977ko ekainaren 2an zitatzea, deklarazioa hartzeko. Apalak deklaratu zuen Moreno Bergaretxe ezagutzen zuela Donostian pare bat aldiz ikusi zuelako, eta baieztatu zuen *“ez zuela kasu horrekin zerikusirik batere”*⁴⁹.

Francisco Mujika Garmendiak bere deklarazioan egin zuen bezala, Miguel Apalategik ez zuen aipatu berak, Pakitorekin batera, Eduardo Moreno Bergaretxe Donibane Lohizunetik Hendaiara autoz eraman zuela desagertu zen egunean.

Aipatutako hiru lan-ildo horiez gainera, Frantziako agintari judizialek Andreu epaileari igorritako dokumentazioan, Marta Moreno Bergaretxeri zuzendutako mehatxua jaso zen.

Perturren arrebak heriotza-mehatxua zekarren gutun bat jaso zuen: (...) *“desagerrarazi egingo zaitugu, zure anaiari egin genion bezala, eta balez josiko zaitugu, eta zure gorpua guztiek ahaztuta Euskal Herritik kanpo ustelduko da, Perturrena bezalaxe”*⁵⁰.

ORDEN NUEVOko Adolfo Hitler Seigarren Komandoak izenpetuta dago. Zigilu-marka 1976ko azaroaren 15ekoa da.

Hemen nabarmendu behar dugu komandoaren izena ORDINE NUOVO⁵¹ izenaren gaztelaniazko bertsioa dela. Ordine Nuovo Italiako neofaxisten talde bat izan zen, eta haren kideetako batzuek deklaratu zuten Espainiako polizia-zerbitzuekin batera euskal errefuxiatuen aurka jardun izana Ipar Euskal Herrian, 1975etik 1980ra⁵².

Familiaren abokatu Maité Maniortek, azaroaren 20an, instrukzio-epaileari eskatu zion eskuin muturreko talde bateko kide Grau Lloret galdekatzeko Perturren desagertzeari buruz⁵³.

Ez dago jasota Larque epaileak inongo kudeaketarik egin izana letratuaren eskaerari erantzuteko, ez eta inongo ikerketarik egin izana ere Perturren arrebak jasotako mehatxuari buruz.

Largespen-epaia Baionako instrukzio-epaile Jean Michel Larquek eman zuen 1977ko azaroaren 30ean. Hartan aipatzen da atentatua erreibindikatu zuten bi mugimendu espainiarrek, “Alianza Apostólica Anticomunista de España” bahitzaile gisa, eta “Batallón Vasco Español comando Emilio Guesala” bahitzaile eta hiltzaile gisa, *“itxura batean Espainiako mugimenduak direla. Frantzian ez dira ezagutzen.”*

Ondorioztatzen du egindako ikerketek berretsi dutela Moreno Bergaretxe desagertu egin zela, baina *“ez dutela biderik eman zer gertatu zen jakiteko, ez eta nortzuk diren ere biktima izan omen denaren aurkako ekintzen egileak”*⁵⁴.

5.7. 1978: Familiak “Bereziei” buruz dauzkan susmoak

Petur desagertu eta urte eta erdi geroago, 1978ko urtarrilaren 20an, haren senideetako batzuek prentsaurreko batean baieztatu zuten Perturren desagertzearen ustezko susmagarriak “Bereziak” deitutakoen kide batzuk direla, desagertuarekin desadostasun politiko handiak zituztenak. “Bereziek” erakundearen barruan tentsioen eta mesfidantza sakonen giroa sortua zuten.

Hedabideen aurrean egindako agerraldi horretan, publiko egin ziren, halaber, Perturrek bere neska-lagun Lourdes Auzmendiri igorritako gutunaren zati kritikoenak. Gogora dezagun gutun horretan *“astakirten”* dei-

49 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 102. or.

50 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 137. or.

51 Auzitegi Nazionalaren autoa, 2012ko irailaren 20koa, 13- 14 or.

52 11305/88 C PM/ 2999/88 A G zigor prozedura, Auzitegi Nazionalan 2008ko maiatzaren 13an aurkeztutako kereilan aipatua, 7. or.

53 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 136. or.

54 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 89. or.

tzen ziela Ipar Euskal Herriko ETAre barruan “*polizia-estatu bateko giroa sortua zutenei, zeinean nork bere auzoaren susmoa baitu, eta azken horrek bere auzoarena*”⁵⁵.

“Bereziak” ETApm-tik bereizi ziren bahiketa izan eta hamar hilabetera, 1977ko maiatzean, eta ETAm-n sartu ziren.

5.8. ETAm-k familiari emandako erantzuna

ETAm-k familiari dokumentu baten bitartez erantzun zion, non amaieran esaten baita deklarazio horiek euskal eskuinaren sektore batzuen maniobra bat direla, susmoetan oinarrituak, “*inongo frogarik gabeak*”⁵⁶, eta lokatzera botatzen dituztela Perturren alde egindako mobilizazioak.

ETApm-ren zuzendaritzak, bere aldetik, elkarri botatako akusazioei amaiera eman zien *Diario 16* egunkaria igorritako zortzi puntuko komunikatu batekin, zeina lehenago ere aipatu baitugu. Idazkiaren zazpigarren atalean honako hau dio:

*“Perturren desagertzeari dagokionez, erakundeak egindako ikerketek hasiera-hasieratik eskuin muturraren, polizia-indarren edo informazio-zerbitzu sekretuei erreparatu zieten, bai eta Perturren ezaguna zen pertsonaren batek, etakidea izan nahiz ez izan, bera saldu izanari buruzko aukerari ere. Gero, ETA militarreko kideek egindako iradokizunen aurrean, alegia, desagertzearen arduradunak “Berezietako” kideak izan zitezkeela, gure ikerketak ildo horretara ere zuzendu ziren. Esan beharra daukagu pista edo jarraibide ugari aurkeztu badigute ere, norabide batera zein bestera, ezin izan dugula ez daturik, ez frogarik bildu akusazio zehatz bat egiteko”*⁵⁷.

5.9. Biriatuko hilerrian. 1997ko iraila

Familiaren abokatu Juan María Bandréssek informazio bat jaso zuen, zeinaren arabera Eduardo Moreno Bergaretxeren gorpua Behobiatik hurbil dagoen Biriatu herriko hilerriko panteoi batean egon baitzitekeen; izan ere, Behobiatik hurbil ikusi zuten azkeneko aldiz Moreno Bergaretxe.

Informazio hori zela eta, familiak Baionako Agintari Judizialei eskatu zien hilerri horretako hilobi bat irekitzeko. ADN probak egin ziren, topatutako gorpua Eduardo Moreno Bergaretxerena zen ala ez konfirmatzeko. Egiaztatze-lanek ez zuten halakorik konfirmatu⁵⁸.

5.10. José Antonio Sáenz de Santa Mariak “gerra zikina”ri buruz esandakoak 1998an

Egin dezagun hamar urteko jauzi bat denboran Fernando Lázaro kazetariak José Antonio Sáenz de Santa Mariari *El Mundo* egunkarian egindako elkarrizketari erreparatzeko. 1998ko abuztuan argitaratu zen. Elkarriketak bultzatzen gaitu hilketaren egileak Espainiako polizia-zerbitzuak izan zirela dioten hipotesietara. Militarrek honako hau baieztatu zuen: “*Mareyren bahiketa hauts-izpi ñimiño bat da terrorismoaren aurkako borrokan*”. Aurrerago, PSOE Gobernura iritsi aurreko garaian buruz hitz egiten du. Honela jaso zuen *El Mundo* egunkariak hitzez hitz: “*Teniente jeneralak gogoratu zuen urte askotan terrorismoaren aurkako borrokan parte hartzen egon zela eta ederki dakit nola lan egiten zen garai hartan eta nola lan egin zen PSOEren garaian. Ez da komeni iragana harrotzea, baina egitateak egitate dira, eta Mareyren bahiketak ez digu ahan-tzarazi behar hura baino lehen beste egitate batzuk izan zirela, **ikertzea komeni ez direnak**, Espainiaren onerako, baina egitateak badirenak; esate baterako, Almeriako kasua, Cubillokoa, Montejurrakoa, Argalarena, **Perturrena**”*⁵⁹.

55 AMIGO, A. Op. cit., 143. or.

56 AMIGO, A. Op. cit., 145- 146 or.

57 AMIGO, A. Op. cit., 150. or.

58 Auzitegi Nazionalean 2008ko maiatzaren 13an aurkeztutako kereila, 5. or.

59 LÁZARO, F. “Martin Villa y Fraga debían solidarizarse con los condenados”. *EL MUNDO*, 1998ko abuztuaren 3a.

5.11. 30. urteurrena (2006)

Moreno Bergaretxeren desagertzearen 30. urteurrenean, Donostian 2006ko uztailean egin zioten omenaldian, haren lagunek beste behin eskatu zuten haren desagertzea argitu zedin. Horixe jaso zuen *Diario de Noticias* egunkariak:

“Ez da hartu behar amaitutako gai baten gisara; izan ere, Espainiako eta Frantziako estatuen erantzukizunak badaude, kasua argitu dadin”⁶⁰.

Egunkariak berak honako hau baieztatzen zuen: *“oinarri handienak dituen hipotesiak BVE eta Triple A seinalatzen ditu, bai eta Espainiako zerbitzu sekretuak ere, zeinek arreta desbideratu baitzuten milien kontu-garbitze bat izan zela pentsa zedin”*. Baina ez zuen ezkututzen beste bertsio bat ere bazegoela, senideena.

5.12. Italiako sumarioa: ETArek aurka Frantziako hegoaldean

Omenaldi hartan, zeinean Ángel Amigo zinemagile eta *polimili* ohiak parte hartu baitzuen, kide izan zuen lagunaren desagertzeari buruzko beste analisi bat egiteko ideia sortu zen. Ikerketa talde txiki bat sortu zuten, eta haien bilaketak eta ondorioak *El año de todos los demonios* (2007) deitutako dokumentalean bildu zituzten. Ikerketa-ildo baten hasiera da, zeinak eraman baitzituen Italian neofaxistei buruz egindako sumario batera: *ETArek aurka Frantziako hegoaldean*.

Ángel Amigok, GARAK egindako elkarrizketa batean, honako hau adierazi zuen: *“sumarioak hamar bat neofaxistaren deklarazioak biltzen ditu, eta guztiak bat datoz berrestekoan Espainiako poliziako sektoreentzat ari zirela lanean. Ederki ezagut daitezkeen atentatu batzuei buruz hitz egiten dute, eta testigantza horien arteko batean, lekuko batek deklaritzen du Concutellik kontatua ziola etakide bat bahitu zutela eta narkotizatu egin zutela, eta Espainiara eraman eta Espainiako Poliziaren talde bati entregatu ziotela, lehenengo galdekatu eta gero desagerraraz zezaten. Deklarazio horiek berrestekotan, Pertur izan zitekeela jo liteke”⁶¹.*

5.13. Auzitegi Nazionaleko kereila

Bi urte geroago, 2008ko maiatzaren 13an, Álvaro Morenok eta Marta Bergaretxek kereila bat aurkeztu zuten Auzitegi Nazionalean, beren semearen desagertzea iker zedin.

Kereila 2008ko ekainaren 27an onartu zuen Auzitegi Nazionaleko Fernando Andreu instrukzio-epaileak.

Egitateak, alde batetik, terrorismoko delitu gisa jaso ziren, eta haien gaineko eskumena, batetik, Botere Judizialari buruzko uztailearen 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 23. artikulua araberaz xedatu zen, eta, bestetik, NBERen Biltzar Nagusiaren doktrinaren arabera; izan ere, azken horrek ezartzen du indarrezko desagertze-egintzek ez dutela preskribatzen egileek desagertutako pertsona non dagoen ezkututzen jarraitzen duten bitartean eta egitateak argitzen ez diren bitartean⁶². Zehazki, Nazio Batuetako Biltzar Orokorra 1992ko abenduaren 18ko 47/133 ebazpenean onetsitako Pertsona guztiak indarrezko desagertzeen aurka babesteari buruzko Adierazpenaren 17.1 artikulua, honako hau ezartzen du:

“Indarrezko desagertze-egintzak delitu iraunkortzat joko dira egileek desagertutako pertsona non dagoen ezkututzen jarraitzen duten bitartean eta egitateak argitzen ez diren bitartean”.

Kereilak bi hipotesi planteatzen zituen. Baten arabera, aukera zegoen desagerpena ETApn erakunde terroristako “Bereziak” izenaz ezagutzen zen sektoreko kideen erantzukizuna izateko —sektore hori aurrerago ETA militarrean sartuko zen—; besteak, berriz, aipatzen zuen desagerpena Espainiako polizia-zerbitzuetan integratutako elementuek —dela zuzenean, dela haien zerbitzuan ari ziren Espainiako eskuin muturreko erakundeetako kide edo neofaxista italiarrak ziren hirugarrenen bitartez— eragindakoa izan zitekeela⁶³.

60 NOTICIAS DE GIPUZKOA. 2006ko uztaileak 8a.

61 “El año de todos los demonios” GARA. 2007ko irailaren 2a.

62 Auzitegi Nazionalaren autoa, 2008ko ekainaren 27a.

63 Auzitegi Nazionalean aurkeztutako kereila, op. cit, 5-6 or.

Kereilan argudiatutakoaren arabera, desagertzearen egile gisa “Bereziak” —ETApm erakundeko “komando berezien” sektorea— seinalatzen dituen hipotesia oinarritzeko arrazoiak honako hauek dira:

1. Barne-borroka, 1976ko apirilaren 8an Berazadi industrialaren hilketak larriago egin zuena. Egitate horrek ETApm-ko gehiengoaren eta “Komando Berezien” arteko desadostasunak areagotu zituen.
2. “Bereziak” Pertur atxiki izana. Horren arduradunak Eugenio Etxebeste *Antxon* eta Simón Loyola *Mendi* izan ziren, 1976ko maiatzean, Pertur ETApm-ko Biltzar Ttipira joatea eragotzi nahi baitzuten. Bilerara horretara joandako batzuek azalpenak eskatu zituzten, eta gehienek Perturrek biltzarrean parte hartzearen aldeko botoa eman zuten. Pertur, azkenean, biltzarrera joan ahal izan zen.
3. Perturrek bere neska-lagun Lourdes Auzmendiri bidalitako gutuna, zeinean, besteak beste, aipatzen baitu “*Bereziak*” erakundea Iparraldean “*polizia-estatu bihurtua zutela, zeinean nork bere auzoaren susmoa baitu, eta azken horrek bere auzoarena*”.
4. Miguel Ángel Apalategik eta Francisco Mujika Garmendiak Donibane Lohizunetik Behobiara autoz joateko denbora gehiegi eman zutela.
5. Pertur desagertu zenean, ez erregistrorik, ez atxiloketarik, ez bestelakorik gertatu ez izana... Moreno Bergaretxek eman zitzakeen informazioen ondorioz.
6. María Dolores González Katarain *Yoyesen* (1986) eta Eduardo Moreno Bergaretxe *Perturren* hilketen arteko paralelismoa. Batzuentzat, Pertur desagerrarazteko arrazoiak eta Yoyes hiltzekoak berak dira.

Hala eta guztiz ere, Frantzia 1977ko ekainaren 2an eta 1976ko uztailaren 24an egindako diligentzietako deklarazioetan, bai Miguel Ángel Apalategik, bai Francisco Mujika Garmendiak ukatu egin zuten inongo harremanik izatea Eduardo Moreno Bergaretxeren desagertzearekin⁶⁴.

Beste hipotesiari dagokionez —Espainiako eskuin muturreko taldeak edo neofaxista italiarrak seinalatzen dituen, Espainiako polizia-zerbitzuekin elkar hartuta, zuzenean nahiz zeharka—, kereilak bi informazio-ildo aipatzen ditu.

Lehenengoa, Francisco Javier Vinader kazetariaren babes-errekurtsoaren kariatara, Moreno Bergaretxeren desagertzeari buruz Konstituzio Auzitegiaren epaian aurkitutako erreferentzietan jasota dago⁶⁵:

Francisco Javier Vinader Sánchez kazetaria kondenatua izan zen “Interviú” aldizkarian argitaratutako bi artikulurengatik: haietan, zenbait informazio eman zituen eskuin muturreko talde terroristekin ustez loturak izan zituzten pertsona batzuei buruz. Horietan, Eduardo Moreno Bergaretxeren hilketa eta desagertzea aipatzen da. Artikulu horiek aipatutako “Interviú” aldizkariaren 188. eta 189. zenbakietan argitaratu ziren, 1979ko abenduko azken astean eta 1980ko lehenengo astean, hurrenez hurren, “Confesiones de un infiltrado” izenburu bakarraren pean.

Konstituzio Auzitegiaren aipatutako epaiaren aurrekarietako 1 A) atalean, aipatzen dira “*zenbait informazio, Vinaderren esanetan, X. X. jaunak eman zizkionak Francisco Ros Frutos polizia nazional ohia*” Frantzia euskal errefuxiatuen aurkako antolaketari eta ekintzei buruzkoak, eta gehitzen du ekintza gehienak “*horretarako kontrolatutako jendeak burutzen zituela*”⁶⁶.

Arestian esandako 1 A) atalean aipatzen diren egitateen artean Perturren desagertzeari buruzkoa dago; horri buruz, honako hau esaten da, hitzez hitz:

“...; [X. X. a Ros Frutos]-ek “*Pertur*” kasuari buruz ere hitz egin ziola, eta esan ziola zuzenean lotuta egon zela horrekin, eta hura hil ondoren eskuak moztu zizkietela identifikazioa eragozteko, eta haren gorpua Espainiako bandera batean bildu zutela eta Frantzia hegoaldeko herri bateko hilerriaren ondoan lurperatu zutela”⁶⁷.

Informazioaren bigarren ildo da Italiako Justiziaren 11305/88 C PM/2999/88 A G zenbakiko zigor prozeduratik heldu dena. Prozedura hori ireki zen Vittorio Occorsio magistratuaren 1976ko hilketa zela-eta, eta Txi-

64 Frantziako agintari judizialek igorritako dokumentazioa. Op. cit., 102. eta 162. or.

65 Konstituzio Auzitegiaren 105/1983 epaia.

66 Konstituzio Auzitegiaren 105/1983 epaia.

67 Konstituzio Auzitegiaren 105/1983 epaia.

leko lehendakariorde ohi Bernardo Leightonen eta haren emazte Ana Fresnoren aurka 1975ean izandako atentatua zela eta, biak ere “*Ordine Nuovo*” talde neofaxistaren eskutik⁶⁸.

Magistratu italiarra Espainiako segurtasun zerbitzuen Ingram metraileta batez hil zuten.

Italiako zigor prozedura horretan ageri diren deklarazioek erakusten dute neofaxista italiarrek 1975 eta 1980 bitartean jardun zutela Ipar Euskal Herrian Espainiako polizia-zerbitzuen tutoretzapean, eta Ingram metrailetak erabili zituztela.

Bereziki Angelo Izzok egindako deklarazioan, honako hauek jaso ziren:

“*Gogoan dut (Concutellik) esan zidala ETAko euskaldunen aurka jardundakoa zela [...] Countellik berriaz ekin-tza horietako bi aipatu zizkidan: behin esan zidan Ingramarekin pertsona bat hila zutela, ETaren base gisa era-biltzen zen argazkilaritza-estudio baten atarian, eta Concutellik esan zuen tiro-sorta bat jaurtiki ziola bularrera eta beste bat aurpegira. Concutellik aipatu zidan beste gertakari bat izan zen behin, autoan zihoazela, motorrean zihoan etakide bat kolpatu eta lurrera bota zutela, eta gero lurretik jaso, narkotizatu eta Espainiara eraman zutela, eta motorra desagerrarazi zutela. Concutellik esan zuen bahitutako hori, behin Espainiara eramanda, ez zute-la poliziaren esku utzi; izan ere, ETaren aurkako komandoetako kide baten esku utzi zuten, zehazkiago CIAko agentea omen zen —edo, hobeki esan, zehatzagoak izateko, iraganean CIArentzat lan egindakoa omen zen— baten esku. Hark esan zuen etakide euskaldun hori torturatu eta gero desagerraraziko zuela”.*

Kereilan azpimarratzen da lekukotasun horiek egiazkoak badira, komenigarria litzatekeela honako hauek gogoan izatea:

Neofaxista italiarren taldeek euskal errefuxiatuen aurkako atentatueta esku hartu zuten urteetan Ipar Eus-kal Herrian desagertu ziren pertsona bakarrak Eduardo Moreno Bergaretxe, 1976ko uztailaren 23an desa-gertua, eta José Miguel Etxeberria Alvarez, 1980ko ekainaren 11n, izan ziren.

Pierluigi Concutelli, *Ordino Nuovo* erakundeko kidea, 1975etik 1977ra bitartean egon zen Espainian errefu-xiatuta, eta ageri da lotuta egon zela urte horietan Espainian burututako ekintzekin. (Beste ekintza batzuen artean, Jurrmendikoa, 1976ko maiatzaren 9an, non bi hildako izan baitziren. Orduan, azaldutakoari erre-paratuta, Pierluigi Concutellik esan zion buruz Angelo Izzok kontatzen duena egia balitz, aukera legoke adierazpen horietan aipatutako pertsona Eduardo Moreno Bergaretxe izateko.

Argudiatze-ildo berean, kereilak Espainian egindako ikerketak ere aipatzen ditu. *El País* egunkariak 1986ko irailaren 25ean, kasuarekin lotutako informazio batzuk eman zituen ezagutzera:

“*Barneko Informazio Brigadaren 1983ko otsaileko isilpeko txosten batek dio Espainian 1972tik bizi zen Car-lo Cicuttini neofaxista italiarrak, atxilotuta egon zen aldian, 1982aren amaieran, onartu zuela —galdeketa-k izan ziren bitartean, baina haietatik kanpo—, Espainiako poliziarentzat lan egin zuela, eta “Frantziar Antite-rrorismo ETA (ATE) talde gisa hainbat operazio egina zela, bai Espainiako ezkerreko kideak, bai etakideak zelatatu eta behatzekoak, eta azken horien aurkako atentatuak ere egin zituela”.*

Kereilak jasotzen du Carlo Cicuttini, “*dirudienez, gaur egun Espainiako espetxe batean dagoela*” eta haren lekukotza eskatzen du.

Andreu epailearen instrukziopeko prozesuan Cicuttiniri ez zitzaion deklaraziorik hartu, nahiz eta autoan ha-ren lekukotza jaso eta hitzez hitz honakoa ageri den “*(Cicuttinik) ez du Eduardo Morenoren desagertzeari buruzko inongo daturik eman*”⁶⁹.

Hori zela eta, demanda-egileak autoa argitzeko eskaera bat egin zuen, eta haren ondorioz autoaren zati hori zuzendu zen, eta seigarren argudio juridikoaren hirugarren paragrafoa kendu zen⁷⁰.

Hipotesi berari jarraituz, kereilak *El País* egunkariak argitaratutako beste informazio batzuk aurkezten ditu, zinetan urte haietan erakunde neofaxista italiarretako kideek egindakoak aipatzen baitira:

1985eko apirilaren 8ko egunkariak Internazional Faxistako burukideen jardueri buruzko ikerketak aipatzen ditu, eta honako hau esaten du horri buruz:

68 Kereila, op. cit, 7-10 or.

69 Auzitegi Nazionalaren autoa, 2012ko irailaren 20koa, op. cit 13. or.

70 Auzitegi Nazionalaren autoa, 2012ko urriaren 30ekoa.

“Internazional Faxistako burukide garrantzitsuak, horietako batzuk polizia frankistarekin zerikusia dutenak, ikertzen ari dira Santiago Brouard buruzagi abertzalearen erailketa dela eta. Espainiako poliziaren txosten batek, sumarioan jasota dagoenak, Erromako Interpolen mezu bat jasotzen du, non baieztatzen baita Stefano delle Chiaiek, Augusto Cauchik eta Pier Luigi Concutellik etakide baten aurka atentatua egina zutela Frantziako hegoaldean, eta beste bat bahitu eta Espainiara eraman zutela, narkotizatu ondoren.”

Eta 1986ko apirilaren 22an, egunkari berean, honako hau aipatzen da:

“Lillo ezizenaz ezaguna zen italiar batek, zeina Espainiako poliziak Piero Luigi Concutelli gisa identifikatzen baitu, 1976ko hasieran etakideen aurkako ekintza terroristak zuzendu zituen Frantzian, berak, Giuseppe Calzonak eta Augusto Cauchik osatutako komando baten buru gisa; hain zuzen, hirurak Italiako mugimendu neonaziko kide ezagunak ziren, Polizia Zuzendaritza Nagusiaren txostenaren arabera.”

Egunkarietako argitalpen horiek zabalduetako informazioak alderdi batzuetan bat datozen arren Angelo Izzok Italiako 11305/88 C PM/2999/88 A G zigor prozeduran egin zituen adierazpenekin, Concutellik euskaldun bat bahitu izanari buruz ezin izan da deus ere frogekin demostratu, Andreu epailearen autoak amaieran aipatzen duen bezala. Hori, halere, paradoxa bat da, zeren eta kereilak berak baieztatzen baitzuen *“hipotesietako bakarra ere ezin izan dela frogatzea berretsi”*.

Kereilak, halaber, kritika zorrotza egiten du erakundeek izan duten interes falta dela eta: *“EDUARDO MORENO BERGARETXE desagertu zenetik joan diren 31 urteetan, guk dakigula instantzia eskudunek inongo ikerketarik ez dute egin kasua argitzeko”*⁷¹.

5.14. F. Andreu epailearen instrukzioa

Instrukzioa lau urtez egin zen, eta kereilan azaldutako bi hipotesietan oinarritu zen.

Epaileak lekuko gisa deklarazioa hartu zien Ipar Euskal Herrian errefuxiatuta zeuden erakundeko zazpi kide eta jarraitzailei: Juan José Gurrutxaga, Eugenio Etxebeste, Simón Loiola, Lourdes Auzmendi, Eleuterio Jauregi, Fermin Imaz eta Sabino Atxalandabaso; eta inputatu gisa Francisco Mujika Garmendia *Pakitok* ETako burukidea galdekatu zuen, Pertur berarekin ikusi baitzuten desagertu zen egunean. Pakitok deklaratu zuen ez zekiela zer gertatu zitzaion Eduardo Morenori.

Beste hipotesiari jarraituz, hiru neofaxista italiarrek deklaratu zuten epailearen aurrean, Espainiako zerbitzu sekretuekin zerikusia izan zutelakoan: Pierluigi Concutelli, Angelo Izzo eta Sergio Calore. Hiru ikertuetako batek, Angelo Izzok, baieztatu zuen bere mertzenario-taldeak urte haietan harremanak izan zituela Poliziarekin eta Guardia Zibilarekin⁷². Adierazi zuen Concutellik, haren kamarada batek, kontatua ziola bera eta Cauchi *“Frantziara joaten zirela ETako burukideak eta antifaxistak bahitzera”*. Gero, Bartzelonako landetxe batera, *“La Granja”* deitzen zuten batera, eramaten zituzten, eta han *“torturatu, erail eta lurperatzen zituzten”*. Baieztatu zuen *“Bartzelonako Poliziaren edo Guardia Zibilaren agindua jasotzen zituztela “La Granja” zeudenek”*⁷³.

Angelo Izzok, 1984ko otsailean, Erromako Epaitegi Penal eta Zibilean deklaratu bazuen ere bere kamarada batek, Pierluigi Concutellik, adierazia ziola 1976ko udan Frantziako hegoaldean etakide bat bahitu zutela eta Espainiako polizia-zerbitzuei entregatu zirela, Andreu epaileak, Italiara joanda, ez zuen lortu halako xehetasunik konfirmatzea⁷⁴.

El País egunkariak, 2009ko maiatzaren 29an, ondotik datorren kronikan —*EFE* agentziaren informazioarekin egindakoan— Andreu epaileak Italian Concutelliri egindako galdeketa jasotzen du.

“Badirudi Pierluigi Concutelli neofaxista italiararen memoriak ETApn-ko burukide ohi Eduardo Moreno Bergaretxe Perturren bahiketaren eta desagertzearen parte hartu izanari buruzko oroitzapen oro ezabatu duela. Atzo, Auzitegi Nazionaleko Fernando Andreu epaileak galdekatu zuen Portoglarion, Venetiatik hurbil, non

71 Kereila, op. cit, 10. or.

72 Auzitegi Nazionalaren 2012ko irailaren 20ko autoa, op. cit 13. or.

73 Auzitegi Nazionalaren 2012ko irailaren 20ko autoa, op. cit 14. or.

74 AIZPEOLEA, L.R. “¿Qué fue de Pertur?” *EL PAÍS*. 2016ko uztailearen 23a.

Concutelli baitago espetxealdi arinaren araubidearen pean, atake iskemiko bat (iktusa) izan ondoren. Epai-leak, halere, ezin izan dio garbitik ezer atera, neofaxistaren gaixotasuna dela eta.

Ikerketak Andreu epailea eraman zuen joan den martxoan beste neofaxista italiar bat, Angello Izzo, galdekatzera, eta azken horrek baieztatu zuen harremanak izan zituela Batallón Vasco Español-arekin. Angello Izzok, zeina zigortuta baitzegoen zenbait hilketarengatik, azaldu zuen hirurogeita hamarrek hamarkadan, ETArek aurkako talde italiarrak, zeinak egiazki mertzenarioak baitziren bi taldetan eratuta zeudela: Madrillgo taldea eta Bartzelonako taldea. Bartzelonako taldeak neofaxista frantses eta portugesak ere bazituen.

Angelok kontaktu zuen bere lagun Concutellik kontaktua ziola ETAko burukide bat bahitua zuela —izenaz ez zen gogoratzen—, eta hura Bartzelonako kanpoaldeko La Factoría deitzen zuten masia batera eraman zutela. Aipatutako etakidea, zeina ez baitzuten ezagutu galdekaturik erakutsitako argazkian, erail egin zuten, torturak eta galdeketak egin ondoren, masia hartan, eta gero hurbileko baso batean lurperatu zuten, beste neofaxista batek, Sergio Caloresek adierazi zuenez, hura ere Andreu epaileak galdekatu zuenean”⁷⁵.

5.15. Ángel Ugarte eta Emilio Rodríguez Román zitatzeko berraztertze errekurtsoa. 2010 urria

Auzitegi Nazionalean jarraitutako prozesu judizialean, Andreu epaileak ezezkoa eman zion Ángel Ugarte de Landa, CESED-Gobernuaren Informazio Zerbitzuko kidea, eta Emilio Rodríguez Román, Gipuzkoako gobernadore zibil eta Mugimenduaren buruzagi probintziala, zeina aurrerago, uztailaren 24an Segurtasun zuzendari nagusi izendatu baitzuten, deklarazioa hartzeko zitatzeari. Irailaren 30eko autoak, lekukotzak ukatu zituenak, argudiatu zuen “ez zegoela behar besteko segurtasuna zuen datu objektiborik pentsarazteko pertsona horiek datuak eman zitzaizketen instrukzio horretarako; hori dela eta, alferrik izango litzateke hura egitea”⁷⁶.

Kereila aurkeztu zuen aldeak aurkeztutako errekurtsoak berriz ere zioen bi pertsona horien deklarazioak garrantzi handia zuela, kontuan izanda gertakariaren unean betetzen zituzten karguak eta Ugartek “*Espía en el País Vasco*” bere liburuan —Plaza & Janésekin argitaratua 2005eko maiatzean— Moreno Bergaretxeri ematen zion garrantzia. Izan ere, liburua Ángel Ugarteren eta Francisco Medinaren arteko elkarriketetan oinarrituta dago. Liburuan “*hogeita bat aipamen daude Eduardo Morenori buruz.*”⁷⁷.

Azkenik, Andreu epaileak deklarazioa hartu zion Ángel Ugarte de Landari, eta azken horrek esan zuen ez zekiela ikertu ote ziren ATE (Antiterrorismo ETA) eta Batallón Vasco Español taldeek bahiketa zela-eta egin dako erreibindikazioak. Eta baieztatu zuen “*berak ez zituela ikertu*”⁷⁸.

Emilio Rodríguez Románek deklaratu zuen ez zuela gaiari buruzko inongo ikerketarik agindu⁷⁹.

Eduardo López de Maturana García, zeina Irungo komisarioburua eta Mugarako delegatua baitzen, emandako lekukotasunean, adierazi zuen bere gaineko aginduak jaso zituela Marta Bergaretxe atxilotzeko, zeren eta haren semea bilatzeko Frantzia egindako bilatze-kudeaketek beste polizia-gai batzuk nahas baitzitezaketen. (Gogoratu beharra dago Perturren ama apirilaren lehenengo egunetan atxilotu zutela eta haren semea 1976ko uztailaren 23an desagertu zela). Ez du gogoratzen nor eman zion hura atxilotzeko agindua⁸⁰.

5.16. Autoa

2012ko iraileko autoan, Fernando Andréu epaileak ondorioztatu zuen Perturren familiaren deliberoa gorabehera, “*ezin zela argudio-ildorik ezarri, Eduardo Morenori egun hartan, 1976ko uztailaren 23an, gertatuta*

⁷⁵ “Un ictus borra el recuerdo de Pertur”. *EL PAÍS*, 2009ko maiatzaren 29a.

⁷⁶ Berraztertze errekurtsoa, op. cit

⁷⁷ Errekurtsoa, op. cit 12. or.

⁷⁸ Auzitegi Nazionalaren autoa, 2012ko irailaren 20koa, op. cit 15. or.

⁷⁹ Autoa, op. cit, 16. or.

⁸⁰ Autoa, op. cit, 17. or.

*koari buruz*⁸¹. Magistratuak gehitzen du egindako jarduketetatik *“ez dela ondorioztatzen behar adina aztar-na dagoenik pertsona jakin batzuei egozteko desagertzearen ardura”*⁸²; horrenbestez, kausa artxibatzeko agindu zuen.

Hala eta guztiz ere, Andreuk bai egiaztatu zuen desadostasun sendoak zeudela Perturren —ekintza politiko eta armak uztea aldeztu zuen— eta “Berezien” ildoaren —indarkeriarekin jarraitzearen aldekoak— artean. Hainbestearainokoak izan ziren desberdintasunak non azken horiek Pertur bahitu ere egin baitzuten, biltzarraren aurreko bileran parte har zezan eragozteko.

Magistratuak probatutzat ematen du Pertur uztailaren 23an ikusi zutela “Berezien” Miguel Ángel Apalategi eta Francisco Mujika Garmendia buruzagiekin. Haiak ikusi zituen Eleuterio Jauregi *Trotsky* errefuxiatuaren esanetan, ez zuen ezer anormalik ikusi Perturren jarreran arreta deitu zionik; izan ere, harekin txantxetan ere aritu zen.

Halaber, berresten du garai hartan zenbait atentatu izan zirela Frantzian errefuxiatutako zenbait etakideren bizitzaren aurka, eta *Alianza Apostólica Anticomunista de España* taldeak bahiketa erreibindikatu zuela *Cifra* agentziari egindako dei batean, eta *El Correo* egunkariak *Batallón Vasco Español* taldearen komunikatu bat jaso zuela, non esaten baitzuen *Pertur* hil eta Nafarroako herri batean lurperatu zutela.

Martin Auzmendik, desagertzearen berrogeigarren urteurrenaren kariatara argitaratutako artikulu batean, honako desio hau adierazi zuen:

*“Seguru nago egileetako batzuk eta desagertzeari estaldura eman zioten batzuk bizirik daudela oraindik. Litekeena da nola desagerrarazi zuten ezagutzera iritsi ziren beste batzuek beraiek dakitena oraindik ere esan ahal izatea”*⁸³.

5.17. Laburpen gisa

Atal honetan saiatu gara bilketa ahalik eta exhaustiboena egiten dauden hipotesiak oinarritu ditzaketen datuei buruz. Datu-bilketan, nolana ere, saiatu gara hipotesi baten edo bestearen alde ez lerratzen, datuek beraiek daukaten indarra bera gorabehera.

Halere, dirudienez batere zalantzarik ez dago ez zela kasua behar bezala ikertu, ez eta efizientziaz ikertu ere, ez egitateak gertatu ziren unean, ezta gero ere.

81 Autoa, op. cit, 19. or.

82 Autoa, op. cit, 21. or.

83 AUZMENDI, M. “Pertur: 40 años desaparecido” *ELDIARIO.ES*, 2016ko uztailaren 22a. 2016ko urriaren 19a. «eldiario.es»

II

Pertur kasua

Prozedura irekitzeko eta zigorra ezartzeko aukerei buruzko arazoak nazioarteko estandarren eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren ikuspuntutik

1. Sarrera

Eduardo Moreno Bergaretxe *Pertur*, ETApM-ko kidea, 1976ko uztailaren 23an desagertu zen, haren desagertzearen inguruabarrak inon jasota ez daudela; halere, funtsean, bi hipotesi izan ziren gaiari buruz: desagertzea ETApM-ko “Bereziak” sektoreko kideek burututakoa izatea, eta erantzule gisa Espainiako polizia-zerbitzuetan integratutako elementuak jotzen dituen, dela zuzenean, dela haien zerbitzuko hirugarrenen bitartez (Espainiako eskuin muturreko edo Italiako neofaxisten erakundeetako kideak). Lau urteko jarduketan ondoren, Auzitegi Nazionalako 4. Instrukzio Epaitegi Zentraleko magistratu-epaile Fernando Andreu Merellesek, 2012ko irailaren 20ko autoan, kausaren behin-behineko largespena xedatu zuen, behar adina frogarik ez baitzuen aurkitu pertsona jakin bati edo batzuei egozteko Eduardo Moreno Bergaretxe 1976ko uztailan desagerrarazi izanaren erantzukizuna.

Egitate haietatik lau hamarkada igaro direnean, **prozedura aurrera eramateko aukeraren** blokeorako elementuak egoteari ala ez egoteari buruzko alderdia eta **balizko zigorrarena** dira ikuspuntu juridikotik azken analisi edo gai-lanketa bat eskatzen dutenak. Perturren desagertzetik iragan den denbora dela eta, azter daiteke ea inguruabarrak ba ote dagoen beharrezko egiten duenik zigor erantzukizunak irauten duen ala ez egiaztatzea, egitateen balizko preskripzioa dela eta, edo egitate horiek Amnistiari buruzko urriaren 15eko 46/1977 Legearen pean jar ote daitezkeen.

2. Espainiako Auzitegi Gorenaren irizpidea

Espainiako Auzitegi Gorenak Gerra Zibilean eta diktaduraren lehenengo urteetan zehar gertatutako indarrezko desagertze kasuak direla-eta hartutako irizpidea aztertuta, badirudi **zigor erantzukizuna azkentzearen** aldeko arau-interpretazio bat egin daitekeela. Interpretazio hori bere egin dute gainerako epaitegiek aipatutakoaren antzekoak diren kausetan, beren geroko ebazpenetan, eta aztergai dugun kasuarekin bat datozen elementu batzuk direla-eta, bereziki egokitzat jotzen da hori txosten honetan gogora ekartzea.

Otsailaren 27ko 101/2012 epaian, Auzitegi Gorenak dio, laburbilduz, ez dela bidezkoa zigor-ikerketak bat egitea gerran eta diktaduraren lehenengo urteetan zehar gertatutako indarrezko desagertze kasuak direla eta, zeren eta kasu horiek preskribatuta egonen bailirateke eta balizko erantzuleak hilik baileudeke, kontuan hartuta, gainera, desagertzeen izaera jarraitua fikzio bat izango litzatekeela (zeren eta ez bailitzateke logikoa izango pentsatzea 1936an desagertutako pertsona batek bizirik jarraitzea); eta, edonola ere, 1977ko Amnistia Legea izango litzatekeelako aplikatzekoa. Ikus daitezkeen moduan, balorazio-parametro horiek urrun daude nazioarteko zuzenbidearekin bat datorren araudia interpretatetik eta aplikatetik, oro har, eta zehazki giza eskubideen arloko nazioarteko zuzenbidea aplikatetik.

Pertur kasuari dagozkion egitateak denboran askoz ere berriagoak diren arren Garzón epaileak ikertutako krimenak baino, hain zuzen ere aipatutako epaia ekarri zutenak (halako moduz non pentsa baitaiteke arduradunetako batzuek bizirik jarraitzen dutela), zera aztertu behar da: ebazpen horretan aipatutako gainerako inguruabarrak legitimitatez aipa badaitezke zigor arloko erantzukizuna ukatzeko, bereziki balizko preskripzioari eta amnistiari dagokienez.

Ondoren 101/2012 epaiaren alderdi garrantzitsuenak aletzen joango gara, konexioak ezarriz eta *Pertur* kasuari buruzko balizko ondorioak inferituz, kasu horri aipatutako epaian hartutako irizpide bera aplikatuta.

2.1. Zigor arloko prozedura eta egiaren bilaketa

Auzitegi Gorenak arlo honi buruz daukan irizpidea ezartzeko premisak kokatzeko, bereziki deigarria eta argigarria da organoak “egiaren bilaketari” buruz egiten duen baieztapena; izan ere hari buruz esaten du ezen, zilegi den asmo bat bada ere, ez dela berezko kontu bat, eta ez dela, ezta ere, zigor prozesuaren atal bat, eta beste erakunde batzuei ere ez dagokiela.

Zigor arloa bazterten denean, esanez ez dela egokiena ez biktimek bila dezaten zigor arloko instrukzioko epailea —helburu hori Estatuaren esku utzita, senidea hil zeneko inguruabarrei buruzko informazioaren birtartez—, ez eta argiki delituzkoak diren egitate batzuk iker daitezen, zeinak lehenago sekula ez baitira ikertu zigor arloaren ikuspegitik Espainian, eta ez dela egokiena, ezta ere, kasuko erantzukizunak ezartzeko eta biktimei erreparazioa emateko, badirudi Auzitegi Gorenak alde batera uzten duela ezen giza eskubideen nazioarteko zuzenbiderako estatuen betebeharrak orokorra dela, hain zuzen ere, egindako delituak ikertzea, bai egitateen inguruabarrei buruzko egia argitzeko, bai eta errudunak zehatzeko eta biktimei erreparazioa emateko ere. Baina, horretaz gain, doktrinak egokitasun handiz adierazi duen moduan, ez dio ezertarako ere erreparatzen honako kontu honi: Espainiako barne zuzenbidearen ikuspuntutik ere, biktimek erreklamatzeko duten “jakiteko eskubidea” hertsiki lotuta dago beste eskubide batzuekin; esate baterako, justizia eskuratzeko eskubidearekin eta errekurso eraginkor baterako eskubidearekin, zeinak Espainiako Konstituzioan islatuta dauden moduan, honela itzul daitezkeen: epaile eta auzitegien babes eragingarria lortzeko eskubidea, Espainiako Konstituzioaren 24. artikulua jasotzen duen moduan⁸⁴.

Azken batean, Auzitegi Gorenak plangintza bat garatzen du, non errefusatzen baitu zigor-prozesura jotzearen egokitasuna, aurrez jakiten denean azken horrek ez duela ondorioztatuko erantzukizun-deklaraziorik, erantzukizuna azkentzeko arrazoiren bat badagoelako; esate baterako, egilearen heriotza, delituaren preskripzioa edo amnistia.

2.2. Legezketasun-printzipioa

Epaia abiapuntua da ezen Espainian nazioarteko zuzenbideko krimenak (zehazki, indarrezko desagertzeak, gizateriaren aurkako krimenen testuinguruan) zigorraren arlotik jazartzeko, beharrezkoa zela eta beharrezkoa dela barne zuzenbidearen arabera egindako transposizio bat. Hori hala da edozein sistematan, baldin eta, Espainiakoak bezala, ez badu jasotzen nazioarteko arauen zuzeneko eraginkortasuna. Ildo horretatik, Auzitegiak dio “ez dela posible —doktrinaren sektoreen batek hala baieztatzen duen arren— tipizitate printzipioaren beharkizunak betetzea nazioarteko ohiturazko zigor zuzenbidean jasotako aurreikuspenarekin, baldin eta barne zuzenbideak tipizitate hori jasotzen ez badu”.

Aurkakotasun horrek, zeina argiro lotuta baitago legezketasun-printzipioarekin, eramaten gaitu argitzera ea gizateriaren aurkako krimenen kontzeptua dela-eta errekurtoa aurkez daitezkeen, kontuan hartuta kategoriatan hori ez zegoela Espainiako Zigor Kodean jasota egitateak gertatu ziren garaian. Auzitegi Gorenak 101/2012 epaian ulertu zuen halakorik ez zela posible, eta argudiatu zuen aurreikusgarritasunaren eta irisgarritasunaren betekizunak ez direla betetzen, zeren eta Garzón epaileak ikertu zuen aldiaren gizateriaren aurkako krimenen kontzeptua bera ez baitzen ezagutzen.

Baina egitateak gizateriaren aurkako krimenen kategorian sartzea alde batera utzita ere, eta hertsiki indarrezko desagertzeei dagokienez, nabarmendu beharra dago Espainiak ez zuela izen hori zuen zigor-tipo berariazkorik. Une horretan, legearen aurkako atxilotzea zen horrelako jokabideak har zitzakeen zigor-tipo hurbilena, nahiz eta nahikoa ez izan indarrezko desagertzea nazioarteko zuzenbidearen arabera osatzen duten elementu guztiak bere baitan hartzeko. Aurrerago aztertuko den moduan, zigor figura berariazkorik ez izateak ez lituzke estatuak salbuetsi beharko indarrezko desagertze-egintzak ikertzetik eta zigortzetik, nahiz eta, dirudienez, Auzitegi Gorena jarrera horrekin ados ez egon. Izan ere, Auzitegi Gorenak, Pertsona guztiak indarrezko desagertzeen aurka babestari buruzko 2006ko abenduaren 20ko Konbentzioaren —Espainiak 2007ko irailaren 27an berretsi zuen— 8. artikulua baliatuta, aipatzen du legez kontrako atxilotzea, desagertuta non dagoen esan gabekoa, ez zegoela aurreikusita legez kontrako atxilotzearen tipo larriagotu gisa instrukzio judizialaren xedea den aldiaren hasieran (zigor tipo hori 1928ko Kodean agertu zen, eta Errepublikara garai 1932ko Kodean desagertu zen, eta berriz ere jaso zen 1944ko Kodean). Horrenbestez, Auzitegiak ondorioztatzen du Garzón epailearen instrukzioaren xede den aldiaren zati handi batean, zigor-tipo hori ez zegoela indarrean.

84 CHINCHÓN ÁLVAREZ, JAVIER/VICENTE MÁRQUEZ, LYDIA/MORENO PÉREZ, ALICIA, “La posición del Tribunal Supremo respecto a la aplicación del derecho internacional a los crímenes del pasado en España: Un análisis jurídico tras los informes del Grupo de Trabajo sobre Desapariciones Forzadas, el Comité contra la Desaparición Forzada y el Relator Especial sobre Justicia Transicional de las Naciones Unidas”, *Anuario Iberoamericano de Derecho Internacional Penal*, 2. liburukia, 2014, 79. or.

Hala eta guztiz ere, gogorarazi beharra dago Perturren desagertzea egitate horiek baino askoz geroago gertatu zela. Garzónek ikertutako kasuetan gertatzen zenaz bestera, Pertur desagertu zen unean legez kontrako atxilotzearen —desagertua non dagoen esan gabekoa— zigor-tipoa bazegoen aurreikusia, eta, horrenbestez, Auzitegi Gorenak 101/2012 epaian argudiatutako tipizitate faltari buruzko lehen-lehenengo eragozpen hori gaindituta egon liteke. Baina ikus dezagun orain zein izango liratekeen preskripzioaren edo amnistiaren bidezko zigor erantzukizuna azkentzearen berariazko kasuak.

2.2.1. Delituaren preskripzioa

Gauza jakina da delituaren preskripzioa zigor-erantzukizuna azkentzeko arrazoietakoa bat izan daitekeela. Zigortzeko asmoa indargabetu egiten da egindako arau-hausteari dagokion preskripzio-epea iragaten bada, eta epe hori, izan ere, delituaren larritasunaren arabera ezartzen da. Delitu batzuen egungo preskribaezintasuna ez da orain dela gutxi samar arte Espainiako antolamendu juridikoan sartutako berritasun bat, eta ez zegoen jasota 1976an indarra zuen Zigor Kodearen aurreikuspenetan. Baina Perturren desagertzearen unean delitu guztiek preskripzio-epeak edukitzeak (ikus 1973ko Zigor Kodearen 112.6 eta 113. artikulua) ez du esan nahi gaia agortuta dagoenik, ez eta delitua automatikoki preskribatuta dagoenik ere, egin zenetik hainbat hamarkada iragan ondoren. Hori horrela da zeren eta preskripzioari dagokionez erabakigarria baita epea noiztik hasi behar den kontatzen. Eta gauza jakina denez, zigor tipoaren mota da hori determinatzen duena. Hartara, bat-batekoak diren delituen kasuan, nola baita homizidioarena, zeinak emaitza gertatzen den une berean gauzatzen baitira, preskripzio-epea une horretatik bertatik hasiko da kontatzen; delitu iraunkorretan, berriz, zeinetan zuzenbidearen aurkako egoera bati eusten baitzaio, tipoa gauzatzen jarraituko da egoera horri amaiera ematen ez zaion bitartean; horrenbestez, preskripzio-epea kontatzen hasiko da zuzenbidearen aurkako egoera hori amaitzen den une berean⁸⁵.

Gauzak horrela, bada, Auzitegi Gorenak hartutako irizpideak harridura baizik ezin du sortu, zeren eta, delituaren iraunkortasunari dagokionez, Auzitegi Gorenaren aipatutako epaiak baieztatu baitzuen delituaren iraunkortasun hori logika juridikoaren aurkako fikzio bat baizik ez zela, eta gehitu zuen “ez dela arrazoizkoa argudiatzea 1936ko legez kontrako atxilotze baten kasuan, zeinean gertatzen baita haren aztarnak 2006an oraindik ere ez direla aurkitu, modu arrazionalen pentsatzea atxilotuak 20 urteko preskripzio epeaz —gehieneko epea aipatzearen— haratago atxilotuta jarraitu zuela. Deigarri gertatzen da Auzitegi Gorenak bere epaian epea zenbaketara hartu zuen erreferentzia dela, hain zuzen, biktimen askatasun-gabetzea gertatu zen unea. Irizpide horri berari eutsiz, eta Auzitegiaren arabera, gerran eta diktaduran egindako krimenak onartuta ere, preskripzio-epea kontatzen hasi beharko litzateke Konstituzioak indarra hartu zuen unetik aurrera (une horretara arte egileek zeukaten zigorgabetasuna dela eta), eta krimenak berdin preskribatuta egonen lirateke.

Gainera, Auzitegiaren arabera, Espainiak berretsi dituen eta haren antolamendu juridikoan integratuta dauden nazioarteko itunetan indarrezko desagertzeak direla-eta aurreikusitako preskribaezintasuna ezin da atzeraeraginez aplikatu. Preskripzio hori arautzen duten xedapenak, zehazki epeen aldaketa bat edo zenbaketaren hasiera-egunaren seinalamendua jasotzen duten erreformak, zigor izaera substantiboa duten arauak dira, eta, horrenbestez, atzeraeraginaren aplikazioaren debekuaren operatibotasun-esparruan sartzten dira, haien edukia erruztatuaren aldekoa denean izan ezik. Horrenbestez, Auzitegiaren arabera, preskripzioari dagokionez, ez da aplikatzekoa jarduten den une prozesalean indarra duen araua (*tempus regit actum* izeneko araua), baizik eta egitateen unean indarra zuena, eta Auzitegiak jarrera hori babesten du hari eutsiko lioketen erreferentzia jurisprudentzial ugari aipatuz, eta horietatik inferitzen du organoak egitateak preskribatuta daudela.

2.2.2. Amnistia Legea aplikatzekoa den ala ez

Auzitegi Gorenak, Garzónen ikerketa ekarri zuten egitateak direla eta, baieztatu zuen amnistiaren barruan sartzten ziren delituak zirela, eta aipatzen zuen 1977ko Amnistia Legearen operatibotasun-esparruan sartzten zirela; zehazki, 1. artikulua barruan, zeinak honako hau baitzuen:

“Amnistiaren pean daude: a) Intentzio politikoko egintza guztiak, emaitza edozein dela ere, delitu eta falta gisa tipifikatuta daudenak, baldin eta mila bederatzehun eta hirurogeita hamaseiko abenduaren 15a baino lehen egindakoak badira”.

85 MIR PUIG, SANTIAGO, *Derecho penal. Parte General*, 10. argitaraldia, gaurkotua eta berrikusia, Reppertor,artzelona, 2016. 232. or. eta ondorengoak ASHOLT, MARTIN, *Verjährung im Strafrecht*, Mohr Siebeck, Tübingen, 2016, 418. or. eta ondorengoak.

Auzitegi Gorenak aitortzen du ezen, Nazioarteko Zigor Gorteak 1998an sortu zuen Erromako Estatu-tua baino lehen ere (Espainiak 2000an berretsi zuen eta EAOn 2002ko maiatzaren 27an argitaratu zen, zehaztuta estatutu hori indarra hartu ondoren egindako delituei aplikatuko litzaiekeela), estatuek konpromisoa hartu zutela giza eskubideen urraketak jazartzeko baliabide eragingarriak edukitzeko, 1966ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren bitartez (2.3 artikulua); izan ere, itun hori 1977an berretsi zuen Espainiak. Hala eta guztiz ere, Auzitegi Gorenak adierazten du itunean jasotako eskubideak exigitzekoak izango liratekeela, halaber, itun horrek indarra hartu ondoren egindako urraketak zirela eta. Jarrera hori babesteko, Auzitegi Gorenak selektiboki aipatzen ditu Itunaren zaintzaz arduratzen den Komitearen zenbait ebazpen⁸⁶.

Azken batean, amnistia lege bat egonda ere, legezkotasunaren printzipioa nagusituko litzateke eta printzipio horrek mugatuko lituzke biktimek dauzkaten itxaropenak lege hori aplikatzeko litzatekeen kasuetan justizia eskuratzeko. Auzitegiaren arabera, ez da bidezkoa halako interpretazio bat egitea non amnistiaren debekua, giza eskubideen funtsezko edukari dagozkion delituak direla eta, nazioarteko ohitura izango litzatekeen, *ius cogens*, eta, horrenbestez, loteslea Espainiarentzat. Are gehiago, azpimarratzen du Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak, ohitura horri oihartzuna ematen diotena, 1977an berretsi zuela Espainiak; horrenbestez, legezkotasunaren printzipiorako eragozpenak bere horretan jarraituko luke.

101/2012 epaian jasotakoaz beste interpretazio bat egitekotan gertatuko litzatekeen arazo bat aipatzen du Auzitegi Gorenak: Espainiako auzitegi batek Amnistia Legea deuseztat jotzeko aukera, zuzenbidearen aurkakoa izategatik. Auzitegi Gorenak dioenaren arabera, ituna ez betetzeak berekin dakar ituna zaintzen duten organoek hura salatzea, baina epaileak legezkotasunaren printzipioari lotuta egonen lirateke eta inolaz ere ezin izango lituzkete legeak indarrak gabe utzi, hori botere legegilearen eskumen eskusiboa baita.

2.3. Sintesia

Orain arte azaldutakotik ondoriozta liteke Espainiako Auzitegi Gorenaren irizpideak, aztergai dugun kasuari aplikatzen zaionak, berekin ekarriko lukeela biktimaren indarrezko desagertzea preskribatuta egotea, edo, bestela ere, amnistiaren pean sartutako krimenetako bat izatea, kontuan hartuta nola interpretatzen duen itunaren indarra 1977a baino lehen gertatu ziren baina data horretatik aurrera ere iraun zuten indarrezko desagertzeen kasuetan.

Hala eta guztiz ere, kasuaren balizko norainokoa nazioarteko zuzenbidearen ikuspuntutik baloratzen hasi baino lehen, bidezkoa da azken zehaztapen bat egitea. Badirudi Auzitegi Gorenak modua lukeela krimenen erantzuleak Estatuko agenteak ziren kasuetan bere epaian hartutako jarrerari eutsi ahal izateko, eta hura, zehaztapen batzuekin, *Pertur* kasua dela-eta hemen ateratako ondorioei aplikatu ahalko liekeela, baldin eta berresten bada desagertze hori Espainiako polizia-zerbitzuek burutu zutela, dela zuzenean, dela bere zerbitzuko hirugarrenen bitartez. Eta egia bada ere aurreko egitateen egileen baldintzek edo inguruabarrek (Estatuko aparatuetako edo erakunde terrorista bateko kideak izateari dagokionez) ez lukeela funtsezko inongo eraginik izan beharko Auzitegi Gorenak Amnistia Legearen preskripzioa edo aplikagarritasuna direla-eta egiten duen diskurtsoan, ezinbestez nabarmendu beharra dago ez dela egiaztatu Perturren indarrezko desagertzearen egiletzari buruz posible diren hipotesietako bakarra ere. Horrenbestez, baldin eta datu berri batzuk tarteko berretsiko balitz egiletza ETApn-ri leporatu dakiokela, egokia da gutxienez ere galdetzea ea kausaren zigorgarritasuna eta jazargarritasuna errefusatzeko Auzitegi Gorenak izan duen erabatekotasunari eutsiko litzaiokeen, bai eta delitu bat izan ondoren “egia” ezagutzeko zigor prozesu batera jotzearen desegokitasuna salatzeke adierazi duen konbikzioari ere, hori egitea gauza guztiz estrabagantea balitz bezala. Badirudi galdera egitea egokia dela, bereziki ETaren jarduerarekin lotutako kasuei buruzko epaiak eta Espainiako organo judizialen bestelako ebazpenak aztertuta ikusi ditugun diskurtsoak eta argudio-ildoak direla eta.

86 275/1988, 343/1988, 344/1988 eta 345/1988 Ebazpenak, zeinetan Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak gogorarazten baitu ituna ezin dela atzeraeraginez aplikatu.

3. Nazioarteko ikuspegia

Egiazki, Auzitegi Gorenaren interpretazio-ildoak kontraste nabarmenean dago nazioarteko zuzenbidean nagusi denarekin. Maila orokorrean, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 15. artikulua xedatzen du, legezkotasunaren eta atzeraeraginik ezaren printzipio orokorra aitortu ondoren, “artikulu honek ez duela eragotziko egin zen egunean, nazio zibilizatuak aitortutako zuzenbideko printzipio orokorren arabera, delitua zen ekintza baten edo ez-egite baten erruduna den pertsona bati epaiketa egitea edo hura zigortzea”.

Pertsona Guztiak Indarrezko Desagertzeen aurka Babesteari buruzko 1992ko Adierazpenean —Nazio Batuen Batzar Orokorrak onetsi zuen 47/133 Ebazpenean— eta berriagoa den Pertsona guztiak indarrezko desagertzeen aurka babesteari buruzko 2006ko abenduaren 20ko Konbentzioan oinarrituta, ez dirudi zalantzarik dagoenik kontatutako egitateak jazartzeko modukoak izateari buruz.

Hala eta guztiz ere, Espainiako Auzitegi Gorenak, lan honen bigarren blokean jada azaldu denez, zigor arloko legeen atzeraeraginik eza adierazi zuen, tesi hori babesteko balio zion Giza Eskubideen Batzordearen erabaki isolatu bat aipatuz, kontrakoak diren beste batzuk alde batera utzita —azken horiei buruz, izan ere, esan zuen “gomendio eta ohar” hutsak direla, eta ez ez-betetzeen salaketak⁸⁷. Badirudi Espainiako Auzitegi Gorenak aipatutako organoaren dokumentu horiei balio juridiko guztia kentzen diela, eta, aitzitik, Batzorde berak egindako beste batzuei eman egiten diela, jokabide horri eusteko bidea ematen duen inongo oinarri juridikorik azaldu gabe⁸⁸.

Azken batez, doktrinak zuzen aipatu duen bezala, badirudi agerikoa dela honako hauek bereizi behar direla: alde batetik, Giza Eskubideen Batzordearen denborazko eskumena nola interpretatu —horrek, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren I. Protokolo Gehigarriari jarraituz, eragina izango du estatuentzako banakako komunikazioen ebazpenean—, eta, bestetik, nazioarteko itun baten interpretazioa eta aplikazio orokorra gidatu behar duen araua, batez ere haren etengabeko bortxaketak daudenean⁸⁹.

Jarraian, bigarren blokean aipatu diren alderdi berberak aztertuko ditugu —alegia, Amnistia Legearen balizko preskripzioa eta hura aplikatzekoa den ala ez—, eta agerian jarriko ditugu nazioartean indarrezko desagertze-delituen zigor erantzukizunaren azkentzea baztertzeko erabiltzen diren argudioak.

3.1. Delitu iraunkorrak eta haien preskripzioa

Giza eskubideak babestearen sistema unibertsean, bai eta sistema erregionaletan ere, inork ez du zalantzan jartzen indarrezko desagertzeak egiten diren unean ez ezik hortik aurrera ere egiten diren bortxaketak direla. Jada aipatu den bezala, delitu iraunkorrak dira, eta horrek berekin dakar ezen biktimak non dauden argitzen ez den bitartean, giza eskubideen urratze etengabe bat gertatzen ari dela. Inguruabar hori berariaz jasota dago Pertsona Guztiak Indarrezko Desagertzeen aurka Babesteari buruzko 1992ko Adierazpenaren 17. artikuluan eta Pertsona guztiak indarrezko desagertzeen aurka babesteari buruzko 2006ko abenduaren 20ko Konbentzioaren 8. artikuluan.

Indarrezko desagertzeen balizko preskripzioari buruzko gaiari heltzeko, egoki da gogora ekartzea “Jardunbide egokiak indarrezko desagertzeen esparruari buruzko zigor arloko legedi nazionalen” izeneko agiria. Indarrezko edo Borondatez kontrako Desagertzei buruzko Lantaldeak egin zuen 2010ean, eta haren helburua zen aipatutako 1992ko adierazpenean jada jasota zegoen indarrezko desagertzeen delitua barne mailan tipifikatzeko betebeharra betetzen laguntzea. Lantalde horrek zioen ezin dela baieztatu berdin-berdinak diren bi delitu hauek: legez kontrako atxilotzea eta indarrezko desagertzea. Egia bada ere legez kontrako atxilotzea indarrezko desagertzearen delituen zati bat izan daitekeela, hark ez ditu hartzen indarrezko desagertzearen elementu guztiak. Izan ere, indarrezko desagertze bat hasten da biktimaren atzipenaldiarekin,

87 Esate baterako, Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordearen 20. ohar orokorra, 1992ko martxoaren 10ekoa, Amnistia Legea indarrak gabe uzteari buruzkoa, edo delituen preskribaezintasunari buruz eta giza eskubideen bortxaketei buruz Espainiari egindako oharpenak.

88 CHINCHÓN ÁLVAREZ, JAVIER/VICENTE MÁRQUEZ, LYDIA/MORENO PÉREZ, ALICIA, *op. cit.*, 89. or. eta ondorengoak.

89 CHINCHÓN ÁLVAREZ, JAVIER/VICENTE MÁRQUEZ, LYDIA/MORENO PÉREZ, ALICIA, *op. cit.*, 91. or.

atxilotzearekin edo bere borondatearen kontra eramatearekin (hau da, hasten da edo legez kontrako atxilotze batekin edo hasiera batean legezkoa izan daitekeen atxilotze edo atzipenaldi batekin). Hala eta guztiz ere, Nazioarteko Zuzenbidearen ikuspuntutik, indarrezko desagertzea osatzen duen bigarren elementua biktimaren askatasun-gabetzea aitortzeari ezezkoa ematean datza, edo haren halabeharraren berri edo non dagoen ez esatean. Indarrezko desagertzeak berekin dakar, horrenbestez, lehen uneko askatasun-gabetzeaz harago, ziurgabetasuneko egoera iraunkor bat, zeinean informazio falta dagoen edo gertatutakoa nahita ezkututzen den urte askoan edo are hamarkadetan, aztergai dugun kasuan gertatu den moduan.

Lan honen ondorioetarako, garrantzitsua da, hain zuzen ere, nazioarteko zuzenbidearen ikuspuntutik, indarrezko desagertze bat egitate bakarra eta bateratua izatea: osatzen duten elementuak gorabehera, zatiturik edo egitate isolatu edo lokabeen batuketa baten gisara ikusi behar ez den egintza bat. Hori dela eta, indarrezko desagertzearen alderdietako bat hamarkada batzuk geroago osatuko balitz ere, egitatea osatzen duten gainerako elementuek irauten duten bitartean (esate baterako, biktima non dagoen argitu ez izana) ulertuko da giza eskubideen urratzeak gertatzen jarraitzen duela. Zatiketa hori saihestu beharrekoa da, nahiz eta indarrezko desagertzeari eusten dioten egitateen oinarri faktikoan eskubide baten baino gehiagoren bortxaketak bil daitezkeen (askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea; torturarik, zigor edo tratu krudelik, ankerrik edo apalesgarririk ez jasateko eskubidea; bizitzarako eskubidea...).

Bada, indarrezko desagertzea delitu iraunkorra denez eta batasun baten gisara aztertu behar denez, inferitu beharra dago preskripzio-epea hasiko litzatekeela, kasua bada, legez kontrako egoera deuseztatzen den unean, edo biktimaren halabeharraren berri jakiten den eta non dagoen argitzen den unean. Eta inguruabar horiek, jakina denez, ez dira gertatu *Pertur* kasuan. Hala eta guztiz ere, Indarrezko edo Borondatez kontrako Desagertzei buruzko Lantaldea harago joan da, eta nabarmendu du “jokabide hobea” dela indarrezko desagertzeek ez preskribatzea.

Indarrezko Desagertzearen aurkako Batzordeak, hain zuzen ere, azpimarratu zuen nolako kezka sortzen zion Espainiako Auzitegi Gorenak ustezko indarrezko desagertzeen kasuen ikerketan izandako irizpideak, eta premiatu zuen preskripzio epeak has daitezkeen kontatzen kasuko pertsona bizirik agertzen den unetik, haren gorpua aurkitzen denetik edo haren identitatea berrezartzen denetik. Indarrezko Desagertzearen aurkako Batzordeak, halaber, nabarmendu zuen indarrezko desagertze guztiak modu exhaustiboan ikertu behar direla, haiek hasi zirenetik iragan den denbora gorabehera.

Europar, eskualdeetan, badirudi **Giza Eskubideen Europako Auzitegiak** ere aipatutakoaren antzeko interpretazio bat finkatu duela, eta horrek kontrastea egiten du, horrenbestez, Auzitegi Gorenak erabili dituen gakoekin. Preskripzioa aipatu berri diren termino berdinetan ulertzeaz gainera (*Kolk eta Kislyly vs. Estonia*, 2006ko urtarilaren 17ko epaia), Giza Eskubideen Europako Auzitegiak azpimarratu du, halaber, indarrezko desagertze guztiak ikertu behar direla, egitateak eta desagertutako pertsona non dagoen argitze aldera, baita heriotzaren balizko presuntzioa dagoenean ere, biktimaren halabeharrari buruzko inongo albisterik gabe urte ugari iragan direlako (*Varnava eta beste batzuk vs. Turkia*, 2009ko irailaren 18a). Auzitegiaren ustez, ikerketa eragingarririk ez izatea bera Itunaren urratze bat izango litzateke, eta urratze hori, biktimaren heriotzaren presuntzioa egonda ere, irits liteke 2. artikulua (bizitzarako eskubidea) ematen duen babesetik modu independentean funtzionatzera. Bereziki garrantzitsua da ikertzeko betebeharra estatuetara heda daitekeela baita heriotza Ituna indarrean sartu aurretik gertatu den kasuetan ere. Hau da, indarrezko desagertzearen alderdi batzuk nazioko edo nazioarteko kasuko tresna indarrean sartu aurretik gertatu direnean ere, baldin eta urratzearen beste alderdi batzuek (esate baterako, kasu honetan bezala, desagertutako pertsona non dagoen oraindik ere jakiten ez bada) irauten badute, ulertuko da kasuko erakundeak eskumena eta jurisdikzioa izango dituela indarrezko desagertzearen kasuaz bere osotasunean arduratzeko, eta ez soilik Estatuari egotz dakizkiokeen eta bidezko lege-tresnak indarra hartu ondoren edo jurisdikzioan onartu ondoren gertatu diren egintzez edo ez-egiteez arduratzeko. Hori indarrezko desagertzearen izaera jarraitutik dator, atzeraeragingarritasunaren printzipioa gorabehera.

Horrenbestez, azpimarratu beharra dago ezen, egitateak preskribatu diren ala ez alde batera utzita, ikerketarik eza bera urratze jarraitu bat izango litzatekeela, baita biktimaren heriotza egiazkotzat jotzera irits daitekeen egitate bat denean ere. Aztergai dugun kasuan, bistan da txosten honen hasieran aipatutako behin-behineko largeste-autoa ekarri zuen Andreu epaileak egindako ikerketa *Pertur* desagertu eta hainbat hamarkada geroago hasi zela. Hartan lortutako datuek, ordea, erakusten dute delitua izan eta berehala ez zela egin egitateak argitzera eta haiei zegozkien ardurak egoztera bideratutako diligentziarik, baina orduan

—delitua gertatu eta gutxira— halakorik egin izan balitz, errazagoa zitekeen biktimaren desagertzearen inguruko inguruabarrak ezagutzea.

3.2. Amnistia Legea aplikatzekoa den ala ez

Nazioarteko zuzenbidearen ikuspuntutik, ez dirudi, ezta ere, onargarria denik esatea egitateak ezin direla zigortu 1977ko Amnistia Legea dela-eta, zeren eta, lege hori parlamentu demokratiko batek onetsi bazuen ere, haren aurreikuspenak ez lirateke nazioarteko ikuspegitik zilegi izango, baldin eta haien edukia ageri-ageriko kontraesanean badago Estatuak nazioartean dituen betebeharrekin (Pertsona Guztiak Indarrezko Desagertzeen aurka Babesteari buruzko 1992ko Adierazpenaren 18. artikulua).

Zehazki, Indarrezko edo Borondatez kontrako Desagertzei buruzko Lantaldeak iritzia eman du, halaber, Pertsona Guztiak Indarrezko Desagertzeen aurka Babesteari buruzko 1992ko Adierazpenaren 18. artikuluari buruz, eta baieztatu du jo beharra dagoela amnistia lege bat Adierazpeneko xedapenen aurkakoa dela baita erreferendum batez edo antzeko kontsulta-bide batez onetsi denean ere, baldin eta haren aplikazioaren edo ezartzearen ondorioz, zuzenean nahiz zeharka, egoera hauetakoren bat gertatzen bada: ikertzeari uztea, arduradunak prozesatu eta zigortzea; zigor-kausak largetzea edo ustezko erantzuleen aurkako ikerketak ixtea, edo zehapen hutsalak ezartzea. Hala, bada, lantalde horrek Espainia premiatu zuen behar diren neurri guztiak hartzera indarrezko desagertzeak ez daitezela izan amnistiaren peko krimenak. Halaber, “1977ko Amnistia Legeari eragin oro” kentzeko eskatu zuen (2013ko irailaren 30ean Espainiara egindako bisitan egindako oharpenak).

Indarrezko desagertzearen aurkako batzordeak ere bere iritzia eman zuen, esanez indarrezko desagertze guztiak ikertu behar direla eta ikerketa horiek direla-eta dauden barne-oztopo guztiak gainditu behar direla, bereziki Amnistia Legea⁹⁰.

Egia, justizia, erreparazioa eta egitateak berriz ez gertatzeko bermeak sustatzeko errelatore bereziak Espainiako Amnistia Legea aipatu zuen, eta kritikoki baloratu zuen nola aplikatu den, eta eskatu zuen eraginik gabe utz zedin⁹¹.

Era berean, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak nabarmendu du amnistia bateraezina dela estatuak giza eskubideen bortxaketak ikertzeko daukaten betebeharrarekin eta biktimei “errekurtso efektibo” bat eskaintzeko xedarekin. Horrenbestez, egitate izugarri larrien egileei amnistia legeen bitartez inpunitatea aitortzea Nazioarteko Zuzenbidearen ikuspuntutik abusuzkotzat jo daitezkeen aukera bat da. Auzitegiak baieztatu ere baieztatu du amnistia orokorrak ematea debekatu daitekeela eta juridikoki onartezina litzatekeela (ikus *Abdulsamet Yaman vs. Frantzia*, 2004ko azaroaren 2koa, eta *Ould Dah vs. Frantzia* kasua ez onartzeko erabakia, 2009ko maiatzaren 17koa, bai eta, *Margus vs Kroacia* epaia ere, 2012ko azaroaren 13koa).

Puntu honetara iritsita, beharrezkotzat jotzen da Espainiako Auzitegi Gorenaren jarrerari berriz heltzea eta hura Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziaren argitan balioestea. Esan bezala, hainbestetan aipatu den epaian Auzitegi Gorenak adierazi zuen amnistia legeak Giza Eskubideen Europako Itunaren aurkakoak izanda ere, itun hori ezin dela atzeraeraginez aplikatu. Hala eta guztiz ere, indarrezko desagertzei dagokienez, ezin izango litzateke atzeraeraginezko aplikazioari buruz hitz egin, *Antonio Gutiérrez Dorado eta Carmen Dorado Ortiz vs Espainia* kasutik ondorioztatzen denez. Eta Auzitegi Gorenak ez du adierazi Espainiakoa bezalako amnistia lege batekin dakarrenik gisa horretako krimenak ikertzeko Estatuak daukan betebeharra amaitu denik (Giza Eskubideen Europako Auzitegia, kasua ez onartzeari buruz 2012ko martxoaren 27an hartutako erabakia).

Izan ere, deigarri gertatzen da Auzitegi Gorenak amnistiaren debekua *ius cogens* (hau da, aginduzko arau gisa, zeina, xedapen-arauei kontrajarrita, ez baitu onartzen hura baztertzea edo haren edukia aldatzea)

90 COMITÉ CONTRA LA DESAPARICIÓN FORZADA, “Observaciones Finales sobre el Informe Presentado por España en virtud del artículo 29, párrafo 1, de la Convención”, Nazio Batuen agiria, CED/C/ESP/CO/1, 2013ko abenduaren 12koa, 12. paragrafoa.

91 RELATOR ESPECIAL PARA LA PROMOCIÓN DE LA VERDAD, LA JUSTICIA, LA REPARACIÓN Y LAS GARANTÍAS DE NO REPETICIÓN DE LAS NACIONES UNIDAS, “Observaciones Preliminares del Relator Especial para la Promoción de la Verdad, la Justicia, la Reparación y las Garantías de No Repetición, Pablo de Greiff, al concluir su visita oficial a España”, 2014ko otsailaren 3koa. Esteka honetan eskura daiteke: <http://www.ohchr.org/SP/NewsEvents/Pages/DisplayNews.aspx?NewsID=14216&LangID=S>

kalifikatu izana eta aldi berean esatea Espainia debeku hori betetzetik kanpo dagoela Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Ituna berretsi bitartean.

Auzitegi Gorenaren interpretaziotik honako hau ondorioztatzen da: Espainiako legea Espainiak hartutako nazioarteko betebeharren aurkakoa balitz, lehentasuna izango luke barneko legearen aplikazioak. Amnistia Legeari dagokionez, Auzitegi Gorenak bi aukera baizik ez du ikusten: indarrik gabe uztea ala aplikatzea, eta itxarotea aplikazio hori kasuko kontrol-organoen aurrean salatzen den arte. Hau da, aukera gisa ere ez du planteatzen epaileek aukera izan dezatela hura halako moduz interpretatzea non giza eskubideen kasu larrienen bortxaketak hartatik kanpo geratuko diren.

Amnistia Legeari buruz daukan jarreran, arauak izan zuen babes zabala azpimarratzen du Auzitegi Gorenak, eta legegilea hura sortzera bultzatu zuten arrazoiak ematen ditu ezagutzera (funtsean, demokraziarako arrakastazko trantsizio baterako baldintza bat izan zela). Auzitegiak ez du kontuan hartzen, azken batean, arrazoiak, goresgarriak izanagatik ere, egiazki garrantzirik gabeak direla erabakitzeke arauak betetzen ote dituen Estatuarentzat lotesleak diren nazioarteko betebeharrak. Gainera, parlamentuan gehiengo zabala izatea ezin da arrazoi gisa erabili lege baten onargarritasuna ebaluatzeke, Uruguako Estatuaren Zigor Asmoaren Iraungigarritasunari buruzko Legea dela-eta Giza Eskubideen Batzordeak egindako oharpenetatik ondorioztatzen den moduan⁹².

Azken batez, aztergai dugun kasuan egitateek daukaten larritasuna kontuan hartuta, eta amnistia legeei buruz eta haiek honelako kasuetan aplikatzeari buruz hainbat organok eta instantziak erabili dituzten argudioak eta izan dituzten jarrerak aipatuta, ez dirudi nazioarteko zuzenbidearen ikuspuntutik defendagarria denik *Pertur* kasuan zigor erantzukizuna amnistiaren ondorioz azkenduta dagoela jotzeko aukera.

4. Egungo egoera prozesala eta etorkizunerako perspektibak

Espainiako Auzitegi Gorenak eta Europako hainbat eskualdetako eta mundu osoko hainbat instantziak jorratutako interpretazio-ildoez harago, *Pertur* kasuaren egungo **egoera prozesalari** erreparatuta, beste behin nabarmendu beharra dago 2012ko irailaren 20ko aipatutako autoak haren **behin-behineko largestea** dekretatu zuela, eta sumariotik ondorioztatzen dela ezen delitu bat egin bazen ere, ez zegoela behar adina arrazoi pertsona jakin bati edo pertsona jakin batzuei leporatzeko egile, konplize edo estaltzaile izan izana.

Egia bada ere behin-behineko largestea eta largeste librea erabakitzen duten autoek errealitate bera adierazten dutela (zigor prozesuaren amaiera), bien artean dagoen desberdintasuna da behin-behineko largespenean prozesuaren azkentzea ez dela behin betikoa izango eta, horrenbestez, bideragarria izango dela prozesua berriz irekitzea hori komenigarri egiten duten aztarna edo datu berriak daudenean. 1976an gertatutako egitate batzuen behin-behineko largestea 36 urte geroago diktatzearen inguruabar hori bereziki garrantzitsua dela iruditzen zaigu, eta badirudi abalatu nahi lukeela kausa ez dagoela preskribatuta, eta ezin zaiola Amnistia Legea aplikatu; izan ere, hala izan balitz, largestea behin betikoa izango zen.

Azpimarratzekoa da, nolana ere, autoak ez duela aipatzen zigor-erantzukizunaren balizko azkentzea (dela preskripzioaren bidetik, dela amnistiaren bidetik), ezta hura baztertzeko ere. Autoa egitateen errelatoak, hipotesiek eta egindako diligentsiek osatzen dute, baina ez ditu jasotzen txosten honetan aipatu diren balizko eztabaida juridikoak. Arazo horiek gaika landu ez direnez, zail gertatzen da erabatekotasunez baieztatzea Andreu epaileak *Pertur* kasuan gehiago egin zuenik nazioarteko estandarrekin hobeki ezkontzen den interpretazio baten alde Auzitegi Gorenak 101/2012 epaian markatutako ildoaren alde baino, baina, nolana ere den, eta aipatu den bezala, ikuspuntu teknikitik, behin-behineko largespen-autoa denez, kausa ez litzateke egongo behin betiko artxibatuta eta ezerk ere ez luke eragotziko hura berriz irekitzea halakorik egoki egiten duten aztarna berriak aurkituz gero.

92 CHINCHÓN ÁLVAREZ, JAVIER/VICENTE MÁRQUEZ, LYDIA/MORENO PÉREZ, ALICIA, *op. cit.*, 96. or.

III

Sintesi bat: azken gomendioak

1. Egitateen errelatoak egiletzari buruzko bi hipotesi uzten ditu zabalik; haiei buruz, ordea, gaur egun ez dago daturik bata ala bestea egiantzekoagoa dela esan ahal izateko. Lan honen helburua ez da, ezta ere, ikerketa faktiko bat egitea. Halere, segurtasunez esan daitekeena da ikerketaren ibilera oso eskasa izan zela hasiera batetik, bai eta hurrengo urteetan ere. Desagertzea gertatu zenetik, agerikoa da ez dela interesik izan ikerketa efiziente eta exhaustibo bat egiteko.

2. Egitateak, nolana ere, ez dira iraganekoak. Desagertzea gaur egungoa da. Gaur den egunean, oraindik ere ez dakigu Eduardo Moreno Bergaretxe Pertur non dagoen. Eta horrek berekin dakar absentzia horren sufrimenduak eragina izaten jarraitzen duela, bereziki senide hurbilenean. Termino teknikoetan, nabarmen izaten jarraitzen du jokabidea zuzenbidearen aurkakoa dela eta delitua egiten jarraitzen dela. Hori dela eta, ikerketarik eza ez da iraganeko analisi bat, baizik eta gaur egungo errebindikazio bat, agintari eskudunak eta gizartea bera, oro har, zuzenean konprometitzen dituena.

3. Aurreko kontsiderazioaren argitan, egia bilatzen jarraitzeko egintza-eza justifikatzeko ahalegin oro onartezin gertatzen da termino juridikoetan, bai eta giza terminoetan ere. Eta litekeena da hori argiago ikustea baldin eta egitatei buruzko gogoeta egiletzaren gaineko bi hipotesien arabera egiten bada: amnistiaren, preskripzioaren eta, azken batean, ezin jazartzearen balizko arrazoiak ontzat hartu beharko al lirateke bai ustezko egileak segurtasun indarretako kideak —edo haien zerbitzuko elementu pribatuak— badira, bai etakideak badira? onargarria al litzateke gaur egun oraindik ere argitu gabe dagoen desagertze baten ikerketarantz balizko egiletzaren araberrako hurbilketa berezitu bat? egiletzak egiaren atea ireki dadin ala itxi dadin baldintzatzen al du? egiletzak baldintzatzen ote du giza eskubidei buruzko nazioarteko zuzenbideak jasotako egiaren, justiziaren eta erreparazioaren estandarra onartzea ala errefusatzeko? Bistan da kasu honetan egiletzaren itzala eta haren inplikazio politikoak harlauza baten gisakoak izan direla eta ikerketari hainbesteko zama jarri diotela non eragingarritasunik ez izatera eraman baitute.

4. Perturren gorpua edo hura non dagoen dioten albisteak agertzen ez diren bitartean, badirudi balizko erreparazioari eta giza eskubideen bortxaketaren balizko errekonozimenduari buruzko gogoeta oso bigarren mailakoa den plano batean utzi behar direla. Zer gertatu zen eta nork egin zuen argitzeko ere egirik ez badago, zer erreparatu daiteke? Gaurkoa den desagertze baten kasuan, biktimei erreparazioa emateko lege-aurreikuspenak eskura daude eta aktibatu ere egin litezke (terrorismoaren biktimei buruzko legedia eta giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei buruzko Euskadiko 12/2016 Legea), baina gertatuko da topo egingo dela egiletzari eta egitatearen inguruabarrei buruzko hipotesiaren gaineko zalantzek berekin ekarriko dutela errekonozimendu-prozedura oztopatzea; eta horrek Perturren hurbilekoen sufrimendua eta birbiktimizazioa areagotzea baizik ez luke ekarriko.

5. Txosten honek balio beharko luke, ordea, gertatutakoaren zuzengabetasunari buruz berriz ere arreta deitzeko eta, agian, beste ikerketa judizial exhaustiboago bat aktibatuzko. Eta, bigarrenik, edo hain zuzen ere lehenengoa aktibatuzko, balio lezake, halaber, gaur egun bizirik dauden eta egitate horiei buruzko informazioa izan dezaketen pertsonen, modu anonimoan bada ere, noticia criminis hori helaraz dezaten, kasu honek sortzen jarraitzen duen sufrimendua hein batean arindu ahal izateko. Horrenbestez, badirudi gomendagarria dela kanpaina instituzional bat abian jartzea, desagertze honen egitateen berri gaurkotua emango duena eta herritarri lankidetzarako dei egingo diena, gertatu zenaren egia edo/eta gutxienez ere haren gorpua non dagoen ezagutzeko bidea emango duten datu berriak, halakorik bada, eman ahal izateko.

Bibliografia eta bestelako iturriak

I. Pertur kasuaren historia

Bibliografia

AMEDO FOUCE, JOSÉ, La Conspiración. La Conspiración. El Último atentado de los GAL, Espejo de tinta arg., Madril, 2006.

AMIGO, ÁNGEL, PERTUR ETA 71-76, Lur arg. Hordago arg., 1978.

MORALES, JOSE LUIS; TODA, TERESA; IMAZ, MIREN, La Trama del G.A.L., Revolución arg., Madril, 1988.

UGARTE, ÁNGEL; MEDINA, FRANCISCO, Espía en el País Vasco. Memorias del primer hombre que negoció con ETA, Plaza & Janés arg., Bartzelona, 2005.

Agiri juridikoak

Frantziako Estatuko diligentziei buruzko dossierra. Frantziako agintari judizialek Auzitegi Nazionalari igorritako dokumentazioa.

Auzitegi Nazionallean aurkeztutako kereila. 2008eko maiatzaren 13a.

Auzitegi Nazionalaren autoa, 2008ko ekainaren 27koa.

Berraztertze errekurtsoa. Auzitegi Nazionallean 2010eko urriaren 5ean aurkeztua.

Auzitegi Nazionalaren autoa, 2012ko irailaren 20koa.

2012ko urriaren 20ko autoa argitzeko autoa.

105/1983 Epaia, 1983ko azaroaren 23koa. Vinader kasua.

Hemeroteka

La Voz de España. 1976ko maiatzaren 30a.

El Correo. 1976ko uztailaren 31a.

La Voz de España. 1976ko uztailaren 27a.

Unidad. 1976ko uztailaren 28a.

Punto y Hora. 9. zk. 1976ko abuztuaren 1-15.

El País. 1981eko irailaren 3a o *El País*. 1985eko apirilaren 8a edo *El País*. 1986ko apirilaren 22a.

El País. 1986ko irailaren 25a.

El Mundo. 1998eko abuztuaren 3a.

Noticias de Gipuzkoa. 2006ko uztailaren 8a.

Gara. 2009ko irailaren 2a o *El País*, 2009ko maiatzaren 29a edo *Gara*. 2016ko apirilaren 5a.

El Diario.es. 2016ko uztailaren 22a.

El País. 2016ko uztailaren 23a.

II. Prozedura irekitzeko eta zigorra ezartzeko aukerei buruzko arazoak nazioarteko estandarren eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren ikuspuntutik

Bibliografia

ASHOLT, MARTIN, *Verjährung im Strafrecht*, Mohr Siebeck, Tübingen, 2016.

CHINCHÓN ÁLVAREZ, JAVIER/VICENTE MÁRQUEZ, LYDIA/MORENO PÉREZ, ALICIA, “La posición del Tribunal Supremo respecto a la aplicación del derecho internacional a los crímenes del pasado en España: Un análisis jurídico tras los informes del Grupo de Trabajo sobre Desapariciones Forzadas, el Comité contra la Desaparición Forzada y el Relator Especial sobre Justicia Transicional de las Naciones Unidas”, *Anuario Iberoamericano de Derecho Internacional Penal*, 2. liburukia, 2014, 66-101 or.

MIR PUIG, SANTIAGO, *Derecho penal. Parte General*, 10. argitaraldia, gaurkotua eta berrikusia, Reppertor, Bartzelona, 2016.

Ebazpen judizialak

Auzitegi Gorena

Auzitegi Gorenaren 101/2012 epaia, otsailaren 27koa.

Giza Eskubideen Europako Auzitegia

•Epaiak

Abdulsamet Yaman vs. Frantzia, 2004ko azaroaren 2koa, *Kolk eta Kislyly vs. Estonia*. 2006ko urtarrilaren 17a.

Varnava eta beste batzuk vs. Turkia, 2009ko irailaren 18a.

Margus vs Kroacia, 2012ko azaroaren 13koa.

•Ez onartzeko erabakiak

Ould Dah vs. Frantzia, 2009ko maiatzaren 17koa.

Antonio Gutiérrez Dorado eta Carmen Dorado Ortiz vs Espainia, 2012ko martxoaren 27koa.